



Nazioarteko sega txapelketa Seguran

Euskal jaiak Ordizian



Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 686 32 05 15

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 17

Izen ematea

Irailaren 9tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierrirako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Mari Flor Mendizabal, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Belen Parra, Maite Lasa eta Edurne Huesa.

Azaleko argazkia: Iñaki Gurrutxaga

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria

Beasaingo Udalaren Mintzalagun egitasmoa: Euskaldun zaharren eta berrien arteko mintza-saioak Beasainen

Beasaingo Udalak onartu berri du Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN), euskaraz bizi nahi duen herritarrari euskaraz bizitzeko aukerak emateko helburu nagusia-rekin. *"Esan beharrik ez dago, plan hori Udalak bideratu badu ere, era batera edo bestera denon esku dagoela bide horretan ahaleginak egitea"*, dio EBPNko teknikariak.

Bide horretan eragiteko Beasaingo Udalak zenbait egitasmo ekin nahi dio eta horietako bat Mintzalaguna izenekoa da. Egitasmo hori Beasainen berria bada ere, Euskal Herriko zenbait lekutan, Donostian esaterako, 10 urteko eskarmentua dute eta helburu nagusia euskaraz ikasten ari denari kalean modu naturalean hitz egiteko erraztasunak eskaintzea da.

Mintzalagun egitasmoaren helburua, hirukoteak biltzea da: euskaldun zahar bat mintzalagun lanak egingo dituen, eta maila bereko bi ikasle. Horiek astean behin bilduko dira ordubeteko mintza-saioa egiteko herriko edozein txokotan geldituta.

Egitasmo hau 2003ko urrian hasi eta 2004ko maiatzean amaituko da eta Udalak horretarako jarriko duen teknikariak egingo ditu koordinazio lanak.

Beraz, batetik euskaraz mintzatzeko laguna behar dutenei deia egiten die Beasaingo Udalak, eta bestetik, mintzalagun izateko prest dagoen herritarrari.

Informazio edo argibide gehiago nahi izanez gero, Euskara Biziberritzeko Planeko teknikariarekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia duzue jarraian: 943 028 100.



Hirukotea biltzea da kontua, euskaldun zahar bat mintzalagun lanak egingo dituen, eta maila bereko bi ikasle. Horiek astean behin bilduko dira ordubeteko mintza-saioa egiteko herriko edozein txokotan geldituta.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Miren Epelde eta Xabier Aiestaran auto istripuan hil dira

Irailaren 1ean, Miren Epelde eta Xabier Aiestaran Ordiziarrek auto istripuan hil ziren Teruelen. 24 eta 25 urteko bikotea, Mediterraneora zihoan oporrak pasatzera.

Jose Aldasoro lan istripuan hil zen

Oporrak hartu genituenean, lan istripu baten berri izan genuen. Beasainen bizi zen Jose Aldasoro Azurmendi idiazabalarra, Irizar kooperatiban hil zen. 44 urte zituen.

Estanda Fundizioak ingurugiro saria jaso du

Beasaingo Estanda Fundizioak enpresak Fundizioaren Munduko Erakundeak emandako ingurugiro saria jaso zuen abuztuaren 5ean. Nazioarte mailako sari prestigiosua da berau. Fundizioko hondarren berreskurapenean atalean eman diote bigarren saria.

Sustraiez Blai Kultur Elkartearen errifan zuzenketa

Sustraiez Blai Kultur Elkartek argazki makina digitala zozketatzen zuen errifan akats bat zegoen. Izan ere, zenbaki irabazlea uztailaren 19ko ONCE-ko zozketaren bidez egingo zela bazioen ere, egun horretan ez zen ONCE zozketarik izan. Beraz, egun bereko Loteria Nazionalaren azken lau zenbakiekin bat datorrenarentzat izango da saria. Zenbaki irabazlea hau da: 8.121. Saria jasotzeko epea 30 egunez luzatu da, hau da, irailaren 30era arte. Sustraiez Blai Kultur Elkartek barkamenak eskatu nahi ditu lerrootatik.



Arrainak hilik Agauntza errekan

Beasainen, Agauntza errekan, ehunka arrain hilik azaldu ziren abuztuaren 28an. Hildako lehenengo arrainak abuztuaren 23an azaldu ziren eta astean zehar gehitzen joan ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikarien ustez, "gaixotasun" batek eragin du arrain hauen heriotza. Naturalki hil direla uste dute Foru Aldundikoek. Tenperaturaren igoerak oxigenoaren faltarik eragin ote zezakeen ere aipatu bada ere, hipotesi honek aukera gutxiago dutela uste dute.

Sugandila taldea

Uztailaren 22an Sugandila taldeak hitzaldia eskaini zuen Beasainen, laguntza txakurrei buruz. Sugandila taldeak Goierri mailan lan egiten du gizakien eta animalien aldeko harremanak hobetzeko. Sugandilaren arabera, "harreman hauen sustapenak izan behar dira duintasuna eta justizia, gizakien artean izan beharko lukeen bezala".

Sugandila taldearekin harremanetan jarri nahi duenak, 690 101 708 telefono zenbakia du aukeran (Lorea).

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 53 Faxa: 943 02 73 39

San Inazio, 5 BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

Transgenikoak, gure plateretatik kanpo!

Transgenikoak eta haien deribatuak oraingoz soja, artoa eta bere deribatuetan aurki ditzakegu, eraldatutako elikagaien % 60an hain zuzen, txokolate, patata frijitu, zein margarina eta plater prestatuetan. Gainera GEOak pentsuen bitartez elika katean sartzen ari dira. Baina azken ikerketa soziologikoen arabera Europako kontsumitzaileek transgenikoen aurka gero eta joera handiagoa azaltzen dute: 1999an % 65ek transgenikoak ez zituela erosiko adierazten bazuen, 2001ean berriz %70'9 izan zen.

Iritzi publiko zein nekazari, ekologista eta kontsumitzaile elkarten aldarrikapenak Europar Batzordera ere iritsi dira eta orain arteko araudia zorrotzea ekarri dute. Horrela hemendik aurrera % 0'9 (lehen % 1) baino portzentai handiagoko transgenikoak dituzten elikagaiak merkaturatzeko, baimen berezia beharko du enpresak eta etiketan argi adierazi beharko du produktua transgenikoa dela. Gainera araudi berriari soja edo arto olioak, elikagai eraldatuak eta animalientzako elikagaiak ere kontutan hartzen dira, lehenago gertatzen ez zena. Horrez gain, zenbait komunikabidek alderantzizkoa adierazi badute ere, genetikoki eraldatutako laboreak ez onartzeko lupapena bertan darrai.

Baina hala ere, ez dugu ahaztu behar etiketajea ez dela nahikoa, baizik eta elika kate osoan transgeniko diren eta ez diren produktuen bereizketa behar-beharrezkoa dela, ez Europar Batasunean soilik, baizik eta mundu osoan. Horregatik ekologista, nekazari eta kontsumitzaileek, hartutako erabakiak ez direla nahiko adierazi dute.

"Kontsumitzaileek transgenikoak identifikatu eta ez erostea erabaki dezakegu."

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Kutsadura transgenikorik ez!



Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak berriz, honelako araudia "zorrotzegia eta ia ilegaltzat" hartu du. Honelako araudiarekin kontsumitzaileek transgenikoak identifikatu eta ez erostea erabaki dezakegu, zer jangai erosi erabakitzeke informazioarako eskubidea bermatuz. Eta hori nonbait, ez da AEBtako gobernuaren gustukoa, ez da ba izango AEBk transgenikoaren industriaren zati handi bat kontrolatzen dutelako?

Esan beharra dago ere, España Europar Batasuneko estatu bakarra dela, bere lurraldean 1998tik aurrera arto transgenikoaren landaketa baimentzen duena, nahiz eta horrek jadanik Nafarroan kutsadura genetikoa eragin duen labore ekologikoetan.

EAEn berriz 28 sindikatu eta gizarte eragilek kanpaina bat abiarazi dute, Transgenikorik gabeko Euskal Herriaren alde. Eusko Jaurlaritzak GEOen Kontrolerako Departamendu Arteko Komitea sortzea proposatu duenez, sindikatu eta gizarte eragileek berriz, transgenikoen Ezabapenerako Departamendu Arteko Komitea sortzea eskatzen dute.

Garbi dago, kontsumitzaileek azken hitza dugula auzi honetan, transgenikoen multinazionalen nahi ala ez, geuk erabakitzen baitugu zer erosi eta zer jan, eta horren arabera produktu batzuen arrakasta edo porrota susta dezakegu. Transgenikorik gabeko elikadura gure esku ere badago.

Edurne Huesa

LIBURUA

✓ **"Guía roja y verde de alimentos transgénicos"** (Greenpeace, 2002). Gida honek transgenikoak dituzten elikagaiak identifikatzen laguntzen digu. Gida eskuratzeko telefonoa: 91 444 14 00 edo web orria: www.greenpeace.es.

JAKIN BEHARREKOAK

✓ **Bioaniztasunari eta araknidoei buruzko nazioarteko kongresua.** Ornogabeak eta garapen jasangarriaren euskal ingurumen estrategia, 2003ko azaroaren 7, 8 eta 9an Donostiako Miramonen, Aranzadik antolatuta. Bioaniztasunaren galtzea mehatxu larria da gizakiaren bizirauteari begira. Mota askotakoak, ugariak, harrapatzen errazak eta Europa mailan oso ezagunak direnez gero, adierazle ekologiko ezin hobeak dira araknidoak adierazitako ikerketa-lerroetan aplikatzeko. Hemen aurkeztzen den Kongresua esparru honetan adituak direnen esperientziak trukatzeko helburuarekin sortzen da, araknidoen aniztasunaren katalogoa, jarraipena eta kontserbazioa bermatzeko programa bat diseinatzeko xedean, (2002-2020) Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian planteatutako helburu eta konpromisoei erantzuteko. Izen emateko prezioa 40 euro izango da, hitzaldien sarrera eta kafeak barne daudelarik. Aranzadi Zientzi Elkarteak, Grupo Ibérico de Aracnología, Haritzaldeko bazkideak, ikasleak eta langabetuak, 30 euro.

Europako Batasunak onartu berri duen Nekazaritza Politikaren Erreformaren eragina baserritarren

Gizarteari iruzurra eta baserritar txikiontzat azken aizkorakada

Europako Batasunak onartu berri du azken bolada hone-tan hainbeste hauts harrotu eta gerora ere harrotuko duen Nekazaritza Politikaren Erreforma.

Dioxinak, behi eroak... El-kagaien inguruan eskandalo handiak eta lotsagarriak izan ditugu, gizartea beldurtu eta ahots kritiko asko altxatu da arrazoi osoz, eta hauen ondorioz politikoak aurpegi garbi-keta bat egitera beharturik sentitu dira.

Ezarri izan diren politika guztiak gero eta gehiago ekoiztera bultzatu edo behartu gaituzte, azken batean intentsifikazio eta industrializa-zio bidean jarri dute Europa-ko nekazaritza. Ez dira kontutan hartu ez elikagaien se-gurtasuna ez ingurugiroan sortu daitezkeen kalteak, ezta ere lanpostuen galerak. Inte-res ekonomikoak jarri izan dira beste edozerren gainetik.

Baserritarrok elikagai osa-suntsuak sortu eta inguru ore-katu bat mantenduaz lan egin nahi dugu eta egiten dugun lan horren ordain justu bat al-darrikatzen dugu.

Onartu den Erreforma ho-

nek, sakonean, orain arte era-man den politika ez du ezer-tarako aldatzen, are gehiago, orain arte eraman den politika okerra iraunkortu/mantendu egiten du. Diru laguntzen ba-naketa injustua mantendu eta bultzatu egiten da, lur jabe handientzat izango dira la-guntzarik handienak, elika-gaiak ekoizten dituzten ala ez kontutan hartu gabe. Guztia, markes, duke eta terratenien-teen pozerako. Botere ekono-mikoak badaki nortzuk ez di-tuen haserratu behar.

Erreforma honetan lurra har-tzen da oinarritzat, baina lur horretan ekoizten den edo ez kontutan hartu gabe. Hau era-bili dute aurpegi garbiketa hori egiteko, honekin eman nahi izan diote kolore berdea erreforma honi.

Erreforma honek prezio jai-tsierak ekarriko ditu, prezio jaitsierak baserritarrentzat baina ez aldiz kontsumitzaile-entzat.

Baserritarrok lehen errenta eskasak baditugu erreforma honek oraindik gehiago es-kastuko ditu eta aldi berean guzti honek ez du elikagaien segurtasuna bermatuko.



Marije Intxausti Onda
(Gipuzkoako EHNEko lehendakaria)

Erreforma honek elikagaien ekoizpena lanerako egokiak diren eremuetan konzentratu-ko du, beraz, gurea bezalako eremu zailak ez dira ezertara-ko kontutan hartuko. Elik-a-gaiaren kontzentrazioa eta eli-kagaien segurtasuna gauza kontrajarriak dira.

Euskal baserritarrok beste nekazaritza politika bat eska-tzen gabilta aspalditik. Ne-kazal politika bat zeinak eli-kagaien segurtasuna bermatuko duen, inguru giroa man-tenduko duen, gazteen insta-lazioa bultzatuko duen...

Erreforma honekin bi helbu-ru bete nahi izan dituzte; ba-tetik mundu mailan agintea duten botere ekonomikoak la-saitu eta bestetik gizarteari entzun nahi duen diskurtsoa bota (eskandaloek sortu di-tuzten ahots kritikoak ixildu nahian).

Gizartearekiko erabili duten diskurtsoa polita izan da, bai-na ez dezagun pentsatu erre-forma honek jarri dituen neu-rriekin sinistuarazi nahi digu-ten hori beteko denik.

Erreforma hau iruzur handi bat da guztiontzat, guztion di-rua erabiliko baitute, alde ba-tetik gehien daukatenak gehien kobratzen jarraitzeko eta bestetik mundu mailako merkatuan posizioak mantentzeko.

Beraz, baserritarrok ozen diogu: Erreforma honekin guztiok gara galtzaile.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net


Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosgi, 16 LAZKAO

Fischlerrek ziria sartu digu



**Xabier Iraola
Agirrezabala**

**(ENBAko
koordinatzailea)**

Europako Batasunak (EB) onartu berri duen Nekazaritzako Politika Amankomunari (NPA) buruz hitzegiterakotan oso kontuan hartu behar dira Europako agintariak dituzten oinarritzako bi abiapuntu: Europa bere ekialdera zabaltzeko behar du eta bestetik, hain ezaguna zaigun globalizazioa dela eta, Europa mundu mailako merkatal harremanak areagotu nahi ditu.

Lehen abiapuntuak, hau da, ekialdeko estatu ohi sozialetangana zabaltzeak ondorio garbia du, herrialde hauek gureak baino txiroagoak direnez eta beren bizimodua hobetzeko dirutza handia behar

duenez EBak bere aurrekontuetatik fondoak desbideratu beharko ditu nazio hauengana eta, nondik atera diru horiek nekazaritzatik ez bada?

Dirutza hori lortu ahal izateko Batzordeko nekazal komisarioa den Franz Fischler jaunak bere asmakizun propioak ditu eta horretarako, modu okerrean aplikatuko den modulazioa asmatu du, geure profesionaleen kasuan %5eraino iritsiko dena eta bestetik, aurrez jarritako diru mugak ez daitezkeen gaintitu, finantza disziplina ezarri du, finkatutako mugak gaintutuz gero, laguntzen murrizketa automatikoa emango delarik.

Bigarren abiapuntua Europa mundura zabaltzea litzateke. Europak ez ditu bere ateak nazio txiroenei itxi nahi. Europa merkataritza aske baten alde dago. Beraz, Nazioarteko Merkataritzaren Erakundeak (NME) sustatzen duen liberalizazioaren bidea jorratu behar da eta nekazal laguntzak, produkzioarekin duen lotura txikiena ere ezabatu

nahi da, baserritarra lorazain modura kontsideratuz, hain zuzen ere, ingurugiroa asko baloratzen duen hiritarraren zerbitzura izango den lorazaina.

Nazioarteko merkatal harremanak aske eta justuagoak izan daitezkeen, zenbaiten ustean, Europak beren nekazariei ematen dizkien laguntzak ezabatu egin behar ditu eta nekazaritzaren lehen helburua, hau da, elikagai osasuntsu eta kalitatezkoak ekoiztea alboratuz, nekazaritzaren "medioambientalista" nagusitu. Azken batean, Europak munduko herri txiroenei mezu garbia bidali nahi die, neuk neure mugak lasatuko ditut zuon nekazal produktuak europearren merkatu aberatsean errezago sar daitezkeen baina, zuok (odolkiak ordainetan), nazio pobrek, zuon merkatuak zabaltzeko beharrezko zaudete Europako produktu industrial, energia, zerbitzu, etb-etara.

Liberalizazio bidean interbentzioa eta esportazioaren aldeko laguntzak murriztuko dira eta dirulaguntzak ematerakoan jarraitzen den irizpidea, produkzioaren arabera izan beharrezko (nahiz tona nahiz buruko) ustiapen bakoitzeko pagamendu bakarra izango da, zeharo edo partzialki desakoplatuta, azken urteotan (2000, 2001 eta

2002) jaso den ordainsariaren arabera eta ingurugiroa lehentasunezko irizpidea bezala finkatuz.

Hauexek dira, neure ustean, Europako Nekazal ministroak onartu berri duten politikaren oinarriak eta zutabeak, hortik gainerakoak, txikieria hutsak dira.

Fischler komisarioak, betiko moduan, Batzorde eta estatu ezberdinen arteko negoziaketan estrategia oso azkarra eman du, hasiera batean bai desakoplamendua bai modulazioa era oso zakarrean azalduz, negoziatioko mahaikide guztiak aztoratu, eztabaida osoa bere txostenaren inguruan zentratu, mahaian jar zituztekeen alternatiba guztiak alboratu eta azkenean, ministro bakoitza bere herrialdera poz-pozik itzuli dadin, bakoitzari bere "trofeotxo" eman eta aurrez aipatutako bi puntuetan, desakoplamendu eta modulazioa, soka lasatu inor ito ez dadin.

Hori bai, oraingoan ere sartu digu ziria, hasiera batetik buruan zuen desakoplamendua, modulazioa eta finantza disziplinak lortu baititu. Agian ez, berak nahi zituen portzentaietan, baina Fischlerrek Europako nekazal politikan ezarri nahi zituen ildo nagusiak, ezarri ditu.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN


Historiako tenperaturarik beroenak izan dira abuztuan

Uda bero-bero, lehor-lehor

Aurtengo udako albiste nagusia, beroa eta lehortea izan ditugu. Historiako tenperaturarik altuenak izan omen ditugu, eguna joan eta eguna etorri. Euriaren arrastorik gabe, lehor-lehor izan ditugu zelaiak. Nekazaritzan izan du eraginik zuzenena eta handiena. Kalteak epe luzera neurtu beharko direla diote nekazarien sindikatuek. Era berean, horrelakorik gehiago ez gertatzeko neurriak hartzea aldarrikatzen dute **EHNEK eta ENBAK.**

Zaharrenek ere ez omen dute aurre bezalako berorik eta lehorterik ezagutu, uste sasoi honetan behintzat. Iazko udaren justu kontrakoa.

Txanponak beti bi alde dituela eta, beraien "abuztua" egin dutenak ere badaude. Igerilekuetako arduradunak pozik daude, haizagailuak



Kamioi zistesnetan eraman dute ura Aralarra.

saltzen dituztenak ere bai. Bat baino gehiago ibili da Goierrin, haizagailurik ezin aurkitu. Izozi saltzaileak eta kanpoan terrazak dituzten tabernetakoak ere, pozik.

Hala ere, egoera larria da. Lehortea baitugu. Arriarango eta Lareoko urtegiak ia %70ean beteta baditugu ere, ia ekaina bukaeratik euririk egin ez duenez, zelaiak, larreak, soroak lehor-lehor daude. Eragin zuzenena nekazaritzan izan du. Urik gabe eta ganaduarentzako bazkarik gabe gelditu dira inguru gehienak. Galerak, epe luzean nabaritu-ko omen ditugu.

Aralar

Aralarren oso larri ibili dira eta dabilta. Enirio-Aralar Mankomunitatetik adierazi digutenez, "azken urte hauetan, udan mendian gero eta ganadu gehiago mendira igotzen denez, hemen nabaritu da gehien lehortearen eragina".

Kamioi zisternetan ura Aralarra eramanez aritu dira, askak urez betetzeko. Ur asko eraman behar izan dute lehorteari aurre egiteko.

Uraren arazoa larria izan da. "Aralar eremu handi baten karaitzez osatuta dagoenez, bertako ur asko berehala

eta zuzenean jausten da Amezketatik Atauna bitartean dauden hainbat erreketara", diote Enirio-Aralar Mankomunitatekoek. Berriz horrelakorik gertatu ez dadin, neurriak hartuko ditu Mankomunitateak: orain arteko azpiegiturekin eta egingo den beste batekin, ura ziurtatuta izango da aurrerantzean, beste horrelako kasuren gertatzen denarako.

Gertaera tamalgarri bat ere gertatu zen lehortearen ondorioz: artzain batek artaldearen erreka batera zeramala, ardiek ura ikustean korrika eta zalapartaka hasi eta 54 ardi hil ziren.

Mendiko Artzantza Lan Taldeak eta Aralargo Ganaduzaleen Elkarteak abuztuan zabalduko prentsa oharrak salatu zuenez, mendi larreetan ura ezinbestekoa zela adierazi du, "izan ere garai hauetan ganaduak mendiko larreetan bazkatzeko behar baitute. Ezinezkoa litzateke ganadu guztiak beheko larreetan pilatzea, larre falta, osasun arazoak eta bestelako baldintzak eta arazoak topa-

NEKAZARITZA **ZELAETA** S.L.

Carlos Diarbid Albizu



STIHL

VIKING



BCS



F-G

Yanmar

COMECA - SABO

Jonsered

DEUTZ - SAME

Ormaiztegi-Beasain errep. (Tejeria zaharra)

ORMAIZTEGI

Tfnoa: 943 16 15 15

Faxa: 943 88 24 73

Gaztelu

● Iturgintza

● Berogintza

Mendi-Ono etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN



Behorak egarria asetzen.

tzen baititugu behean. Hau honela, mendiko larreetan bazkatu behar dute eta honetarako behar bezalako ur hornikuntza ezinbesteko bezain urgentziazkoa da". Egoera honen aurrean, ura Aralarra eramatea, "berandu harturiko neurria" izan dela adierazi dute bi taldeek. "Ganaduzale eta artzainok, mendiko larreetan bizitzen ari garen ur eskasia eta honen ondorioz ganaduak behera jaitsi beharko genituela ikusirik, bilera baten eskaera luzatu genion Mankomunitate zein Foru Aldundiari. Egoera larriak bultzatutako eskaera izan arren, hilabete erantzu-nik gabe egon gara abuztuaren lehenengo astera arte".

Sutea

Lehortea gutxi balitz, abuztuaren 5ean hasi zen suteak ere ez dio batera onurarik ekarri Aralarri. 200 bat hektarea erre dira. 4 artzainen ar-

diek duten bazka leku gehiena. "Bertako bizitza biologikoari ere muturreko handia eman zaio inguru horretan", diote Mankomunitatetik.

Mendiko Artzantza Lan Taldea eta Aralargo Ganaduzaleen Elkarteak adierazi dutenez, "amorrua eta haserreareagotzen zaizkigu egunetik, izan ere sute honen itzaltzean hasiera hasieratik ganaduzale eta artzainak soilik aritu baikara. Beraz, hau adierazteaz gain, gogor salatu nahi dugu bai sute honen aurrean arduradun desberdinek erakutsi duten axolagabekeria eta bestalde sua ganaduzale edo artzainek piztu dutena zabaltzen ari izatea".

Enirio-Aralar Makomunitateak salaketa hauei erantzun nahi izan die, "ondoren batako besteari aitzakiak ematen ari-tu gabe, aurrez lan egin behar dugu guztiei jakinaraziz, suak mendian zer ondorio larri dituen".

Behean ere larri

Mendian ez ezik, behean ere egoera larri bizi du nekazaritzak uda honetan lehortearen ondorioz. Esne behiek produkzioa murriztu dute, osasun eta garbitasun arazoak dituzte, oiloak eta untxiak itolarrian, barazkiak eta fruituak kiskalita... EHNE eta ENBA nekazal sindikatuak egoerari buruzko gogoeta egin dute.


ENBAko Gipuzkoako lehendakaria den Mikel Arteagaren esanetan, "ur faltan aurkitu diren hainbat baserritan, udalek jardun dira zisternekin gora eta behera deposituak betetzen, baina nire ustez, ur horniketaren arazoak beste irtenbideren bat izan beharko luke eta honen gainean gogoeta sakona gin beharrean gaude bai baserritar, bai udal, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ur Kontsorzioa". ENBAk gaineratu duenez, "jakin badakigu zenbait baserritar ur kanalizatuarekin ailegatzeko ia ezinezkoa dela eta beste irtenbideren bat eman beharko zaie baina lehortea zerbaite azaldu badigu, orain arte (bartzuengandik behintzat) amaitutzat jotzen zen baserrietako ur horniketa ez dagoela hain ondo eginga eta zenbait bulegotan karpeta itxi beharrean, ur horniketaren karpeta berreskuratu eta gaiari heldu beharko zaio bere gordintasun osoan".

Galerak zenbatzea ia ezinezkoa dela dio ENBAk, baina "baserriz baserri izan den kaltea zenbatuko bagenu, berehala konturatuko ginatke lehortearen eragin ikaragarriaz eta egoera honi aurre egiteko ezinbestekoa izango da denon arteko elkarlana eta babesa, hasi baserritarrengandik eta administrazioetan amaituz".

Hondamendia

EHNE sindikatuak "hondamendi" gisa definitu du aurtengo egoera. Aurrera begirako galerak oraindik ere handiagoak izango direla uste du EHNEk. Sortu den arazoaren aurrean, EHNERen iritziz, arazo orokor bat konpontzeko erabaki orokor-rrak hartu behar dira, eta ez unean uneko arazoa estaltzeko gai diren erabakiak.

EHNE sindikatuak bazkaren alorreko azterketa ekonomiko-koa egin du. Ondorioz, larre hektarea bakoitzeko 330 euroko galera izango da. Bazka produkzioaren % 50 galdutzat eman dute eta negurako gorderik zuten elikagaia ari dira ganaduak jaten. Horrek ere gastuak igo egingo ditu. Ganadua menditik jaisten ari direla ere azpimarratu du EHNEk, eginkizun horretarako bi hilabete falta badira ere. "Lehortearen eragina horrenbestekoa da, belarra ere sustraïetatik lehortzen ari da, eta horren ondorioz, uza berria ezarri beharko da gerora".


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

Euskal astea Ordizian

railaren 5etik 14ra
bitartean euskal jaiak
ospatuko dira Ordizian.

Tartean, asteazkenean,
iraileko azoka berezia
izango da, lehiaketak
nagusi direla.

Irailak 5, ostirala:

18:00etan: Jorge Rodriguez
Almanza argazkilariaren era-
kusketa, Barrena Kultur Etxe-
ko erakusketa aretoan.

22:00etan: Eraiki Dantza
Taldea Plaza Nagusian.

Irailak 6, larunbata:

Egun osoan haurrentzat par-
kea puzgarriekin, Barandia-
ran plazan: goizean 11:30 -
13:30 eta arratsaldean 16:00 -
20:00.

22:15ean: Herri Antzokian,
Gorringo taldeak 'Kutxidazu



bidea, Ixabel' antzerki lana
eskainiko du, Anjel Alkain,
Mikel Sarriegi, Ainere Tolo-
sa, Iñaki Agirrezabal, Ixabel
Agirresarobe eta Egoitz Lasa
aktoreekin.

Irailak 7, igandea:

jubilatuaren eguna:

10:00etan: goiz eresia trikiti-
larien eskutik.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: trikitilariekin kale-
jira.

14:15ean: jubilatutako eta pen-
tsiodunen bazkaria Beti-Alai
pilotalekuan.

Ondoren, dantzaldia orkestra
batez alaitua.

Irailak 8, astelehena:

19:30ean: Barrena Kultur
Etxean, Ordiziari buruzko bi-
deoaren aurkezpena.

Irailak 9, asteartea:

17:30ean: 'Bertako produk-
tuekin egindako Elkarteen ar-
teko XIII. Sukaldaritza
Lehiaketa' eta 'Goierriko
odolki onenaren IX. dastake-
ta-lehiaketa'.

Irailak 11, osteguna:

20:00etan: Barrena Kultur
Etxean, 'Eunhate' taldearen
ikus-entzunezko proposame-
na.

Irailak 12, ostirala:

16:30etik 20:30era: Plaza
Nagusian, Asteroko Ostirale-
ko azoka egingo da, bertan
Elkarte Gastronomikoen pro-
duktuen dastaketa izango da.

21:00etan: kantu afaria Plaza
Nagusian. Antolatzailea: Hi-
tzaro Euskara Elkarte.

borja de la cuesta
Kortinak, alfonbrak,
etxeko arropak
Oihalak
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

INPRIMATEGIA
URDANETA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

KIXMI
Artesania
Opariak
K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

GOI-ETXE
s.a.
Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA
☎ 943 88 49 50
ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENAKO ERAIKUNTZAK:
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

Irailak 13, larunbata:

Egun osoan haurrentzat parkea puzgarriekin Plaza Nagusian: goizean 11:00 – 13:30 eta arratsaldean 16:00 – 20:00.

22:30ean: Herri Antzokian: Xukan Taldeak 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna taularatu-ko du, dantza, bertsoa eta trikitixa uztartuta.

Irailak 14, Igandea:

12:00etan: Barrena Kultur Etxean, Lazkao-Txiki XII. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

20:00etan: Plaza Nagusian, Pontevedrako Sta. M^a de Tebra (Tomiño) herriko 'Grupo etnográfico Airiños de Tebra' dantza ikuskizuna.

Azoka berezia irailaren 10ean

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikuen erakusketak eta lehiaketak.

12:00etan: Jose Migel Barandiaran plazan, fruta, barazki eta perretxiku lehiaketan sari banaketa.

12:30ean: Garagartza plazan, ganadu eta lumagorri lehiaketan sari banaketa. Ondoren, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.

13:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari-banaketa.

17:30ean: Beti-Alai pilotalekuan, profesionalen eskuzko pilota partidak: 1.partida: Saralegi-Pinedo / Mendizabal-Begino. 2.partida: Koka-Beloki / Olaizola II - Pascual.

19:00etatik aurrera, euskal dantzen jaialdia herriko kaxkoan Alkartasuna-Ohiaka taldearen eskutik.

19:30ean: Jose Migel Barandiaran plazan, herri kirolen erakustaldia: harri-jasotzen, Iñaki Perurena eta Iñaxio Perurena; aizkoran, Donato Larretxea-Joxe Etxebeste.

Oharra: Egun honetan ordiziarrei baserritar jantzi kalera ateratzeko deia egiten die Udalak.



EROSKI

KAFETEGIAK

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3

943 88 04 06

ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

BAKAS

ARROPADENDA

- MISS SIXTY
- LUXURY
- KILLAH BABE
- SESSUM
- ...

Tel: 943 88 79 92

Garagarza plaza 3

20240 ORDIZIA

ESTETIKA ZENTROA



JOSUNE

Jai zoriontsuak!

J. M. Barandiaran pl., 3 ORDIZIA

☎ 943 882 888

Faxa: 943 886 973

Xabier Almandoz, nekazaritza ekologikoaren ekoizlea: "Azokak bultzatzeko beharrezkoa da publizitate instituzionala"

Ordiziako azokan produktu ekologikoak saltzen ditu Xabier Almandoz donostiarrak. Azokei eta nekazaritza ekologikoari buruzko hausnarketa egin du lerrootan.

Ordiziako azokako saltzailerik gazteenetarikoa izango zara. Zer esan nahi du horrek?

Ez dakit gazteena naizen ala ez, baina egia da jende gazterik ez dagoela. Zergatik? Lan gogorra delako eta etekina ez delako handia. Azokak kolo-kan daude, hipermerkatu handien mesedetan. Azokak mantentzeko egin behar diren ekimen guztiak beharrezkoak dira, beharera baitoaz azokak. Irudimena behar da.

Azokaren etorkizuna nola ikusten duzu?

Ekimenak edo iniziatibak behar harko dira.



Xabier Almandoz, Ordiziako azokan. "Produktu ekologikoetan fruituetan nabarmenena da alde". Askotan itxuran galtzen omen dute. "Baina garrantzitsua da kalitatea da. Baina begitik asko jaten du. Gure erronka produktu itxurosoak lortzea da".

Adibidez?

Nik argi eta garbi daukat: publizitate instituzionala. Diputazioa edo Jaurilaritza Eusko Labelarekin egiten duten adina publizitate egiten hastea, gure betiko kultura eta gure betiko ohiturak azpimarratuz, emaitzak hobetuko lirateke. Askotan ez gara jabetzen gure erosketekin zer indartzen ari garen. Jendea hipermerkatuetara joaten da erosotasunagatik, ni ere duela ez askora

arte hala joaten nintzen. Baina konturatu nintzen, hipermerkatuetara joanda zein kultura edo ekonomia maila ari nintzen indartzen. Jendea ez da konturatzen azoketara edo herri txikietako dendetara joateak duen garrantziaz. Jende horri adieraziko bagenio, herri txikietan eta azoketan erosketak eginez gero dirua herrian gelditzen dela, ekonomia lokala bultzatu behar dela. Nik ez dut inoiz ikusi pu-

blizitate instituzionalik gure alde. Jendearen kontzientzia esna arazi behar da.

Azoka berezi ugari egiten da Ordizian. Horrelako ekimenak ere egokiak al dira?

Hori ere beharrezkoa da. Baina hor arrisku bat dago, azoka folklorea gelditzea. Folkloretik aparte ekonomia dago eta bokazionalki ezin da ekonomia mantendu.

Ostiral arratsaldeetako azokak erosle berria erakarri al du?

Ostiral arratsaldeetan, asteazkenetan joaten ez den jendea hurbiltzen da. Asteazkenetan eta ostiraletan joaten dena ere badago. Baina ez da guk espero genuen bezala. Jende askok ostiral arratsaldeak libre edukitzen ditu baina askok, erosketak egiteko baino gehiago, aisialdirako aprobetxatzen du. Dena den, ostiraletako azoka epe ertainerako apustua da. Oraindik ere badago jendea, ostiraletan azokarik dagoela ere ez dakienik



LUBERRI
Loradenda

- ✓ Landareak
- ✓ Lora sortak
- ✓ Ezkontza prestakuntzak
- ✓ Opariak

Euskal jai zoriontsuak!
J.M. Barandiaran, 3 ☎ 943 16 04 79 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak!

X kel

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06 - 619 770 600 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!



GOIAGI
OKINDEGI
Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etxezarreta z/g **ORDIZIA** ☎ 943 160501

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegi tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

Kokaleku berria izan du azken bi urteetan Ordiziako azokak. Era-ginik izan al du?

Batzuk desiatzen daude Plaza Nagusira itzultzeko, batez ere goiko aldean daudenak. Eta arrazoia daukate. Batzuk be-tiko bezeroak dituzte baina egia da toki onean egonez ge-ro, gehiago salduko dela, noizbehinka datorren bezero-ak ez baitu ibilbide guztia egiten. Guk zorte handia edu-ki genuen eta erdiko partean egokitu zitzaigun.

Azokan ahuntz gazta saltzen ha-si zinenen zer esaten zuen jen-deak?

Jendea harrituta gelditzen zen hain gazta txikiak ikusita. Oraindik ere harritu egiten da. Hemen beti ardi gazta izan da, besterik ez dagoela uste dute batez ere adindue-nek, baina gaztarena uniber-tso bat da.

Nolako bezeroak hurbiltzen dira zure postura?

Asteroko erosketa egitera etortzen den bezeroa ez da. Tartekako bezeroak ditugu gehienak, eta guri interesa-tzen zaizkigunak bezero leia-lak dira, astero joan eta ero-sketa osoa egiten duena. Ba-tzuk badaude, batez ere haur txikiak dituzten familiak,


gaiaz kezkatutik daudenak. Dena den, oso jende gutxi da-go denetik erosten duena. Be-raz, eskaintza zabala eduki behar da.

Herritarrek gero eta kontzien-tziazatzen al daude produktu eko-logikoekin?

Azkeneko 15 urteotan Eusko Jaurlaritzak diru asko gastatu du Labeletan. Produktore ekologikoak ere kalitatearen K Fundazioan sartuta gaude baina anaia txikiak bezala hartzen gaituzte, labeldun produktuek bolumen handia-go baitaukate. Adibidez, oi-laskoen kasuan, Labelak ziur-tatzen du artoa eta belarra ja-ten duela oilaskoak, zelaian ibiltzen dela... baina esaten ez dutena da, jaten duten artoa transgenikoa den ala ez, arto-ak pestizidarik daukan ala ez... Oilasko ekologiko batek ziurtatzen du jaten duen artoa ekologikoa dela. Orain guri benetako kalitatea esaten ba-digute, orain arte egin dutena ez dela hain ona esan nahi du nolabait. Laguntzen gaituzte, baina beste autonomia erki-degoetan adina ez. Jendea hainbeste izenekin nahastuta dabil, trasgenikoa eta ekolo-gikoarekin ere bai. Produktu ekologikoak goraka doaz, baina pixkanaka-pixkanaka.

Hasiera ahuntz gaztarekin

Duela 15 urte sartu zen ne-kazaritza ekologikoaren munduan, Aldaba Zahar baserria kokaleku hartuaz beste hiru lagunekin bate-ra. Ahuntz gazta eginez ha-si ziren. Gaur egun, be-raien eskaintza askoz ere zabalagoa da: behi eta ardi gazta, barazkiak eta ogia.



Ahuntz gaztarekin hasi ziren, baserriaren inguruan pinudia dutela ikusirik. Frantzian garrantzia handia du ahuntz gaztak, nahiz eta hemen ahuntz gaztak nahikoa fama txarra izan. Arlo honetan konpetentziarik ere ez zuten. "Nahiz eta fama txarra izan, ahuntz gazta osasunarentzat hobea da, koipe gutxiago baitu. Egia da gustu berezia duela. Gustu ezberdina du. Ba-tzuei gustatuko zaie eta besteei ez. Agian, hemen jan dugun ahuntz gazta Extremadura aldetik ekarria izan da, oso ondua. Baina ahuntz gazta berria oso suabea da. Normalean gaztaza-leei, gazta guztiak gustatzen zaizkie", dio Xabierrek. Gazta txi-kiak egiten dituzte, "barruko mamiaren eta azalaren gustua batera hartzeko. Azal eta guzti jaten da. Onddo da azala".

Mantangorri

Aldaba Zahar Elkarteak eta beste hiru produktorek Mantango-ri enpresa sortu berria dute. Produktu ekologikoak banatzeaz arduratuko da, azoketan zuzeneko salmenta eginez eta interesa duten dendetan banatuz. Lasarten duten biltegitik egingo dute banaketa. "Azoketan zenbat eta produktu ekologiko ezberdin gehiago, orduan eta hobeto. Gure enpresa berriarekin hori lor-tuko dugu. Azokek orokorrean ere hori behar dute, produktuen eskaintza zabala", dio Almandozek.



Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3

943 88 76 15

ORDIZIA



AZURMENDI Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Itziarko
Industrialdea, E-13

ITZIAR

943 19 93 00/30
Faxa: 943 19 92 70

Gipuzkoa osoko
baserritarrentzat pentsua
ekoiztu eta banatzen duen
kooperatiba gara

Caballero-Arze bikotea munduko mus txapelketan izango da "Musean ondoen Goierrin jokatzeko da"

Urrian Argentinako Mar de Platan jokatu da munduko mus txapelketa. 18 bikotek hartuko dute parte eta Gipuzkoaren ordezkaria, Ordiziako bikote bat izango da: Pepe Caballero eta Enrike Arze.

Mundu osoko 18 euskal komunitatek hartuko dute parte. "Euskaldunak bizi diren komunitateak: Argentina, Mexiko, Kolonbia, EEBB, Euskal Herria, Txile... Mundu guztiko euskaldunak bilduko gara. Duela 40-60 urte emigratu zuten euskaldunek parte hartzen dute. Beraiek eta beraien ondorengoek", dio Pepe Caballero ordiziarrek. 5. aldia da munduko txapelketan parte hartzen dutela Caballerok eta Arzek.

Munduko txapelketara joateko txartela lortzeko, mundial aurrekoa jokatu behar izan dute Donostiako Londres hotelean, Gipuzkoako ordezkariak aukeratzeko. "Zailena mundial aurrekoa irabaztea da, 120 bikotek hartu baikenuen parte. Aurretik dena den, 'errebotean' goaz. Finala galdu egin genuen, iazko munduko txapel-dunen aurka. Hauek beraz, zuzeneko txartela zuten mundialerako, bigarren bikote sailkatuari eman zaio aukera Argentinara joateko".



Pepe Caballero eta Enrike Arze ordiziarrek.

4 erregetara

Munduko mus txapelketa 4 erregetara jokatzeko da, 40 tantoko 4 usteletara. "Baina mundial aurrekoa zortzira jokatu genuen", zehaztu du ordiziarrek.

Keinuek ez dute balio. "Baina hori gezurra da. Ez dago zalantzarik denok egiten ditugula keinuak, eta alderantzizkoa dioenak gezurra dio. Begi bat itxi eta ezpainak zimurtzea historiara pasatu da. Bikote bakoitzak bere keinuak ditu. Ezinezkoa da keinuak harrapatzea. Bikoteak bakarrik daki. Dena den, garrantzitsuen karta onak edukitzea da", aitortu du.

Mundial aurrekoa bi partidara jokatzeko da. "Bikote batek irabazten badu eta besteak beste, hirugarren partidak balio izaten du. Mundialean, ustelek balio handia

daukate, ustelak kontatzen baitira. Ustel gehienak egiten dituenak sailkatzen dira. Lehenengo bi jokoak galdutakoak munduko txapeldunak izan daitezke".

Orain arteko munduko txapelketak Euskal Herrikoek irabazi dituzte. Pepe Caballero esan digunez, "asko gaitik, Euskal Herrian jokatzeko da ondoen musean, eta bereziki hemen, Goierrin, Zaldibian, Ordizian, Zumarragan eta Tolosan".

Mundialeko saria txapela eta garaikurrarekin batera, Eusko Jaurlaritzak ematen duen bidaia izaten da: munduko edozein lekutara.

Psikologia asko

Lasaitzeko tresna oso ona da mus jokoa Caballerorentzat. "Asko gustatzen zait. Zentimo bat jokatuagatik, gogoarekin jokatzeko dut beti. Nor-

baitek irabazten badit izorratu egiten naiz."

Txapel eta garaikur asko irabazitakoa da Caballero. Arze bikote lagun duela. Muslari ona izateko zer behar den galdetu diogu: "lehenengo eta behin, kartak eta hauek manejatzen jakitea. Psikologoa eta azkarra, ez intelijentea, izan behar da. Azkarra, aurkaria ezagutzen. Beste gauza bat, inbidia balaratzea. Tanto batek bukatu pisu handia izan dezake. Bikotearekin konpenetratzen ona behar-beharrezkoa da. Bikote lagunarengan erabateko konfiantzarik ez badaukazu, gaizki ibiliko zara. Konfiantza edukiz gero, badakizu partidua ez dizula piktura botako". Lasaitasuna eta egoten jakitea oso garrantzitsua dira Caballerorentzat, batez ere txapeletik gero eta gertuago egonez gero.

Kartarik onenak, hiru errege eta batekoa, eskutik, direla zalantzarik ez du ordiziarrek. "Baina oso konplexua da. Jende oso ausarta dago. Askotan karta onak izanagatik galdu egiten da".

Musean jokatzeko lagun asko galdu ote dituen galdetuta zera erantzun digu: "boxeo bezala dela esaten da. Muturrekoak eman baina gero lagunak izan. Musean lagun min asko egin ditut, nahiz eta amorrazio ugari pasatu musean jokatzekoan".



Xenkegi
DEKORAZIOA

Tel: 943 889 113 Faxa: 943 028 429
xenkegi@euskalnet.net
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Bainuak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN





Ordiziako Tabernarien partetik

*Euskal jai
zoriontsuak guztioi!*

**ETXETXO
TABERNA**



**OIANGU
TABERNA**



HERRIKOA TABERNA



**MIAMI
kafetegia**



*Martínez
Jaietxea*



ALDASORO
Taberna - Jaietxea

**OLANO
TABERNA**





Herriarteko txapelketan arrakasta

Azken urte hauetan erreminta arloan Gipuzkoako herriarteko txapelketa irabazteko zorian egon eta gero, azkenean, aurtan, Olaberriko taldeak merizitako saria lortu du. Gari Arrietak, Jose Manuel Garridok, Xabier Berasategik, Jose Luis Sarasolak eta Iker Arrietak gogor aritu behar zuten txapelketa hau arrakastatsu amaitzeko. Aurreko urteetan, garaipenaren ateraino ailegatzen ziren, pena handiz,

lortu ez izanaren arantza kenduta, batek baino gehiagok pentsatzen zuten ez zuela berriro txapelketa honetan parte hartuko.

Ordiziarren aurkako finalerako partidua Oiarzunen jokatu ziren. Final honek Goierriko taldeen maila ona garbi erakusten zuen. Lehen partidua olaberriarrentzat onuragarria izan zen. Gari eta Garridok larruzko paletan Aiestaran eta Aizpuruaren kontra

Hipikaren hastapenerako ikastaroa

Udalak Uda2003 kanpainaren barnean, eta Foru Aldundiaren laguntzarekin, hipikaren hastapenerako ikastaroa antolatu du Alarpe zalditegian (Lazkao). Egunak: irailaren 26tik 27ra (10 saio). Adina: 9 urtetik aurrera. Prezioa: 30 euro. Informazioa eta izenematea: udaletxean.

jokatu eta irabazi egin zuten, 35-26 markagailuan. Aldea 9 tantokoa zen eta Olaberriak irabazteko 31 puntu lortu behar zituen pala motzeko partiduan.

Urduritasun askoko partidua izan zen. Berasategik eta Sarasolak Ordiziako Berasategik eta Goiburuk osatutako bikotearen kontra jokatu zuten. Partidura joan ziren olaberriarrek biziki animatzen zuten baina markagailua pixkanaka-pixkanaka igotzen zen eta 31 tantuak oso urri ikusten ziren. Momentu txarrrak pasa ziren baina itxaropena ez zen inoiz galdu. Sendiak eta lagunak partidua ikusten sufritu zuten eta Olaberriko bizilagunak jaietan murgilduta garaipena noiz ailegatuko zen gogoz itxaroten ari ziren.

Lortu zuten. 31 tantua iritsi zenean txapelketa irabazia zegoen. Markagailuak ordiziarren alde 40-32 amaitu

zuen. Gure taldeak puntu baxkar batengatik tanteoz irabazi zuen. Partidua berdinduta amaitu izan balitz, ordiziarrek irabaziko zuten gazteenek etekina ateratzen dutelako eta beraiek ziren gazteenak.

Ordurantz Olaberriko herriarentzat palako taldeak saria lortu zuen. Olaberria gazte hauekin harro zegoen. Merzitako harrera egitea ez zen posible izan baina herriarengatik egindako lana eskertzeko Udalak afaria eskaini zien.

Pilota taldeak bestalde Udalar finlean irabazitakoen antzeko txapel bat oparitu nahi zion eta era berean Iker Arrietari taldearen barruan egindako lanaren omenez beste txapel bat. Nahiz eta 4 izan partidua jokatu zituztenak, lortutako garaipenaren alde Ikerrek besteek adinako laguntza eta lana egin zuen.

Belen Parra

San Migelak prestatzen

Oraindik hilabete osoa aurretik izan arren ekintza batzuk dagoeneko hasiak dira martxan. Egun hauetako egitaraua oraindik zehazteko dago baina hasita dagoen pilota txapelketaz arituko gataizkizue. Asteartean hasi ziren lehen partidua jokatzeko herriko gazteenekin. Aste gutxian zehar arituko dira maila ez-

berdinetako gazteak beraien trebezia erakutsi nahian. Aste bukaeratan berriz lekukoa helduek hartuko dute. Helduen artean gogoratu federatu gabeak larunbatean goizeko 10etatik aurrera hasiko direla eta federatuak berriz igande goizetan. Norbaitek zalantzarik izanez gero ordutegi edo partiduekin, jakin, frontoiko

paretan jarriak daudela talde eta partidua guztiak.

Areto futbola

Areto futboleko mutilak ere beste urte betez arituko dira lehia bizian. Hauek astelehenan izan zuten lehen entrenamendua eta ilusioarekin hasi direla azpimarratzen du bertako kapitainak. Joan zen urtetik aldaketa nabarmenak izan dira taldean bertako batzuk alde eta berriak sartu direlarik. Hori bai denak ere herriarrek. Hauen lehen estreinaldia urteroko San Migel txapelketan izango dute, eta

jarrian denboraldia hasiz..

Futbola

Berriz ere hiru talde izango dira Lazkaok aterako dituenak aurtengo urterako. Kadeateak, jubenilak eta erregionalak. Azkeneko hauek dagoeneko hasiak dira aurre-denboraldia prestatzen. Berez hila-ren 21ean hasiko dira denboraldi berria baina aurretik partidua batzuk jokatu dituzte mailari neurria hartzeko. Arizti Handin ikusteko aukera izango da nahiz eta egunak zehaztu gabe egon.

Aitor Tello



Mutiloa

Lierniko Andra Mari jaiak

Asteburu honetan hasiko dira Lierni auzoan Andra Mari jaiak. Ondoren datorrena da egun horietarako prestatu den egitaraua.

Irailak 6, larunbata:

17:00etan: Jaiei hasiera emateko suziriak eta kanpai jozteak.

17:30etan: Ume Jolasak.

21:00etan: Auzo afaria, Mujika jatetxean.

Ondoren eta goizaldera arte: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

Irailak 7, igandea:

Goizeresia Segurako txistularien eskutik.

12:30etan: Meza Nagusia.

13:15etan: Toka lehiaketa

Ondoren: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaitutako erromeria.

16:00etan: XXII. Lierniko Txirrindulari frogaren irteera. Gazte mailak proba, Lierniko Txirrindulari elkarteak antolatutak.

18:00etan: Herri kirolak Zur-gai taldearen eskutik. Aizko-

Arantzazura erromesaldia

Abuztuaren 30 eta 31 izan dira aurtan Arantzazura erromesaldia egiteko hartutako egunak. Bezperan mendiz egin zuen talde batek Arantzazura bitarteko ibilaldia eta igandean autoz nahiz autobusez joan ziren urteroko ohiturarekin jarraituz.

Iñaki Ugalde

ran eta aitzurrean elkarren kontra Manolo Cañamares eta Jose Mari Esnaola. Harri-jasotzen eta txinga eramaten, Patxi Larretxea, Nafarroako txapelduna harri txikiarekin eta txapeldun ordea txingak eramaten.

Arratsaldean zehar: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak eskutik erromeria.

Irailak 8, astelehena:

Andra Mari eguna:

11:30etan: Meza nagusia.

Egun osoan zehar: Erromeria Aitziber Urdangarin eta Aiora Gorostizu trikitilariak eskutik.

Irailak 14, igandea:

10:00etan: XXII. Pitxoi tiraketa, Aitz-buru elkarteak antolatuta. Tonbola ere izango da.



Altzaga

Imanol Mujikari omenaldia


Artea Elkartearen ekimenez eta Udalarekin elkarlanean Imanol Mujikari eskerrona agertzeko omenaldi xume bat antolatu du Altzagako herriak irailaren 14rako.

Imanol Mujika nor den azaltzen hasita esan Iparragire baserrian jaiotako 53 urteko altzagatarra dela, gaur egun Sahatseta etxean Begoña emazte eta Harritxu eta June alabekin batera bizi dena eta Berogas enpresako langilea bizibidez.

Bere ibilbide politikoari begiratuta esan, 1978. urtetik 1990. urterarte udaleko partaide izan zela eta urte horretatik aurrera Altzagako alkateza hartu zuen bere gain eta kargu honetan dirau gaur

egun ere. Baina guzti hau baino gehiago badugu Imanol: herriko talde eta mugimendu ezberdinen bultzatzaile eta koordinatzaile ere izan da eta batez ere Altzagarentzako proiektu baten alde apustu egin duen gizona da.

Kontutan izan behar da Altzaga gainbeheran zihoan herri bat izatetik bere bidea aurkitu duen herri bat izatera pasa dela, gauzak pixkanaka egiten ari dira baina helmuga eta proiektu jakin bat jarraituz. Guzti hau aurrera eramateko orduan lan talde ezberdinen ezinbesteko laguntza ere jaso du Imanolek bere ibilbidean zehar baina ezin ahaztu Imanol izan dutela gidari bide honetan.



Bere ibilbideko proiektu esanguratsuen artean elizaren berri tapena, Urruti Zelaiko etxebizitzak, Artegain pilotalekua, plazaren urbanizazioa eta baserrietara eginko ur-eramateak leudeke, baina Altzagari eginko ekarpenik handiena dudarik gabe, egunez egun eginko ixileko lana dugu.

Irailaren 14rako antolatu diren ekintzak honakoak dira: 13:00etan Ohorezko aurrekua. Ondoren aizkolarien erakustaldia. 14:00etan Bazkaria herriko plazan. Arratsaldean

trikitixa eta abeslariak izango dira. Bazkarirako tikeak Artea Elkartean eta udaletxera deituz (943 881170) izango dira eskuragarri. Salneurria 25 eurokoa izango da eta irailak 8 bitarteko epea dago hauek eskuratzeko.

Kronista berria

Datorren aletik aurrera Ekain Mujikak idatziko ditu herriko kronikak. Inork albisterik edo argitaratzeko zerbait izango balu 943883724 telefono zenbakira deitu Ekainekin harremanetan jartzeko.

XXI. Usakume tiraketa

Txoritegi elkarteak antolatuta, irailaren 7an, goizez eta arratsaldean Azpaotza-txiki baserriko zelaian. Izen ematea 20 euro. 1.500 euro eta eskopeta saritan.

Ehiz postuen subasta

Partzonetiko 6 herrien artean, abuztuaren 29an, 48 postu zozketatu ondoren, gainerako 48ak irailaren 14an subastuko dira Segurako udaletxean, goizeko 10,30etan hasita. Proposamenak 13an, 12:00etarako bidali behar dira.

Jubilatuen eguna

Irailaren 14an ospatuko dute herriko jubilatuek euren eguna. Herriko dantzari eta txistularien harreraren ondoren, 12:00etan meza izango dute komentuan. Bazkaria, Zumarragako Etxeberrin. Joaten ez den 80 urtetik gorakoari etxera eramango zaizkio tarta eta txanpaina. Bakarren batek gaixotasunagatik ezingo balu joan udaletxera deitu irailaren 10erako. Bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du bazkariagatik.

Labur-labur

● **Fatxadak bermargotu.** Iazko udan Gaztekutxakoek kolore biziz margotutako Iñu-

Harresia, labe aztarnak eta pozadera

Txulone ondoko etxebizitzak egiten hasi aurretik, uztailaren amaieran Aranzadi Zientzia Elkartekoek egindako indusketa arkeologikoan zenbait aztarna interesgarri topatu zituzten. Zerkalde aldeko 14 metro luzerako eta 1,50 eta 1,90 bitarteko zabalerako harresiaz gain, errementari lanerako erabilitako 3 diametroko bi labe handi eta 4 metroko sakonerako pozadera agertu ziren. Aranzadikoek, argazkiak atera eta planimetria osoa eginda, bertako informazio guztia dokumentatu dute. Antzeko labeak, herrian aurrez egindako zenbait indusketetan ere azaldu dira.



Bi labe handien aztarnak eta zerkaldeko harresia.



Pozadera, eskabadora lurra kentzen ari zela agertu zen, Unzurrunzaga kalearen kontra.

deneko eta Amaliatxoneko fatxaden koloreak apaldu eta aldatu egin dituzte.

● **Peregrinazioa.** Mutiloak eta zeraindarrekin batera zenbait herritar Arantzazun izan ziren urteroko erromesaldian abuztuaren 30 eta 31n.

● **Arantzazu barriokoen afaria.** Irailaren 13an auzoan hildakoen aldeko meza (20:00) komentuan eta ondoren auzo afaria.

● **Jubilatuen txangoa.** Irailaren 24an, Ondarroara eta Gipuzkoako mendebaldeko kostara. Bazkaria Zestean. Arratsalde pasa Donostian. Izen ematea, 18 eta 19an, 19:00etatik 20:00etara Atse-den elkartearen.

● **03-04 ikasturtea eskolan.**

Irakasleak aste honetan hasi dira eta ikasleak irailaren 8an.

● **Futbola.** Bi asteburu barru hasiko dute liga herriko taldeek. Datorren denboraldian 5 talde arituko dira, infantil txikien 'Aizkorri B' taldea sortu baita.


● **Sasieta Mankomunitatearen oharra.** Irailean traste zaharrak ateratzeko egunak,

10 eta 24a. Aurrez Sasieta deitu (943161590).

● **II. Hegazti eguna.** Irailaren 28an burutuko den azoka antolatzeko bilera irailaren 9an, 19:00etan, udaletxean.

● **Nazioarteko sega txapelketa.** Informazioa eta egitaraua 32-33 orrialdeetan.

Joseba Telleria



Kilo eta erdiko tomateak

Eulojio Albusuk Santa Engraziko terrenoetan duen baratzean, sekulako tomateak jasotzen ari dira aurtan. Berak etxean hazia ereinda ateratako landareak, maiatzaren 10ean aldatu eta argazkian ageri direnak abuztuaren 18an jaso zituen. Tomate portugesa deitzen zaiona da. Handienak kilo eta erdi pisatu zituen eta ondokoak kiloak.

Musika Eskola

Tobera musika eskolako ikasleak irailaren 8an hasiko dute 03-04 ikasturtea. 45 neska-mutikok eman dute izena, musika tailerrean, hezkuntza musikalean edota instrumentuetan aritzeko. Azken honetan, pianoa, akordeoia, trikitixa, panderoa, saxofoia, klarineta eta kitarra eskaintzen dira.

Lau gela berri

Beheko eskolan lau gela berri egokitu dira ikasturte honetarako. Hauek, musika eskolak bakarrik erabiliko ditu. Obraren %60a Eusko Jaurlaritzak eta %40 udalak ordainduko dute.



Paxkual Larrañaga musika maisuaren oroimenez

Musikaz zen bizi, musika zuen benetan atsegin, musika zigun irakatsi, musikaz zuen bizitza osoan zehar gure herria alaitu. Paxkual esaldi hauek eta antzeko beste hainbat eskaini arren, berak bizitza osoan musikaren inguruan burutu zuen neurri gabeko lana laburbiltzea ezinezkoa gertatzen da.

Zoritarrez uztailaren 11n herria bizitza osoz musikaz alaitu izan digun Paxkual maisu handia gure artetik joan zen. Herria atsekabe eta saminez bete zuen berri tamalgarría izan zen, are eta gehiago Paxkual gertutik eza-gutu eta berarengandik horrenbeste musika irakaspén jasotako bere ikasle taldea. Guztion begietan malkoak, bihotzean samina, baina buruan Paxkualen irudi bizia. Bakoitzaren barrenean Paxkualenganako sentimendu eta oroitzapenak bizi-bizirik iza-

nik, guztiok batean musika maisuari doinu bikainez jantziriko eta berak merezi bezalakoa agurra prestatzeari ekin zitzaion.

Paxkual benetan estimatua zela eta berak bizitza osoan egin zuenak merezimendu osoa duela agerian geratu zen; Paxkual Larrañaga txistulari eskolak bizirik dirau eta etorkizunean jarrai dezan bi-tartekoak jarritz berak irakatsiak hedatzea izango litzateke eskaini dakiokkeen omenal-dirik beroena.

Bizitza osoa musika gozatuz

"Musika bizia da!" Aditzera ematen zuen behin eta berriz Paxkualak. Behin eta berriz inoiz hutsik egin gabe lantegitik atera eta Iriarte-Erdikoa etxera hurbiltzen zen bere zaletasuna besteen zerbitzura jartzera. Gure herrian musika zaletasunak inoiz hutsik egin

Tejeri auzokoen urteko bilkura

Aurtengoan seigarren aldiz jarraian Tejeri auzoan bizi izandakoek beraien urteko bilkura eguna ospatuko dute, irailaren 20a n. Bazkaria Gabiriako Korta jatetxean ospatuko da.

Aipatu ekitaldian parte hartu nahi duzutenek jakin arazi nahi zaizue komenigarria dela zuen izena ahalik eta azkarren ematea antolaketa lanak ahalik eta egokien bidera daitezzen. Izene-matea Euskadiko Kutxako 3035.0006.82.006.1.00604.9 kontu korrontean 30 euroko dirusarreraren bitartez egin dezakezue. Diru sarrera egiten duzuen unean, arren, norberaren izena jar dezazuen eskatzen zaizue.

Odolemaile elkartearen eskertza

Herriko mediku kontsultorioan ospatu zen azken odol ateraketan 50 odol ateraketa egin ziren. Azken deialdi honetan ere odolemaile berri batek lehen aldiz odola eman zuen eta bi analisi ere egin ziren.

Oraingo odol ateraketan ere Elozegi ardotezia, Murua harategia, Deba harategia eta Iñaki Autoserbitzua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Otordu, Medikuntza kontsultorioa eta udala izan zituzten laguntzaile. Beraz aipaturiko guztiei elkartearen izenean eskerrik beroenak bidaltzen dizkiegu, baita odol ateraketan parte hartu zuten odolemaile guztiei, bai herritar eta baita Gabiria eta Ezkio-Itsasotik hurbildutakoei ere.

ez zezan hazia ereiten eman zuen bere bizitza osoa. Berak erein zuen haziaren uza belaunaldiz belaunaldi jaso izan da herrian, eta egun oraindik ere fruituak ematen ari da.

Makina bat une goxo, makina bat irakatsi, makina bat abesti, makina bat doinu, makina bat dantza, hau da bizitza osoa musika besteen zerbitzura jarri izan zuen maisu handi baten bukaerarik gabeko jarduna izan zen. Inoiz hutsik egin gabe 50 urte luzez herriko parroikiko organujole ere izan zen.

Musika doinuak Paxkualen oroimenez

Paxkuali agurra Lierniko erromeria egunean egin zitzaion. Erromeriak kutsu berezia izan zuen, denon oroitzapenean horrenbeste urtez erromeria alaitu zuen Paxkualen irudia baitzegoen. Lierniko Amaren ermitan meza nagusia bereziki Joxe Luis eta Paxkuali eskainia izan zen. Suziririk ez jaurtitzeara eta musika doinuak isil-

tzea erabaki zen.

Herriko sarreratik elizara-ko ibilbidea herriko ikasleek maisuarekin batean burutu nahi izan zuten, beraiekin hainbat eta hainbat herrietatik etorritako txistulariak bidela-gun izan zituzten. Paxkualak horrenbeste oroitzapen zuen Gernikako ereserkiaren doinuz jantziriko ibilbidea izan zen, benetan hunkigarria bilakatu zena. Legazpiko Santi-kutz abesbatzak eta organujoleek abesturiko hileta elizkizuna, irteeran, berriz, maisu handiari ohorez txistulariek Agur Jaunak.

Senditarren eskerrik beroena

Paxkual Larrañagaren senditartekoek beraiekin atsekabean bat egin eta hileta elizkizunean partaide izan ziren guztiei banan-banan eskerrak ematea ezinezkoa gertatu izan zaien, eskertza lerro hauen bitartez guztiengana helaraztea nahi dute.

Aitziber Murua



Herriko gazte talde bat Pirinioetara joan zen uztailaren 19an. Sallent de Gállegotik Respomuso aterpetxera abiatu ziren. Bertan afaldu eta lo egin zutelarik. Hurrengo goizean Gran Fachara abiatu ziren. Eguerdia alderako iritsi ziren 3005 metro dituen mendi honen gailurrera. Jaitsiera Valle de Marcadautik egin zuten, Walon aterpetxetik pasatuz. Pont d'Espagnera jaitsi eta bertan hartu zuten autobusa eta etxera itzultzeko.

Odol emailleak

Uztailan izan zuten herritarrek odola emateko aukera. Txanda honetan, 50 lagun

hurbildu ziren, eta hauetako bostek ezin izan zuten odolik eman hainbat arrazoiengatik. Gainera, 4 analisi ere izan ziren. Odola eman zutenetatik 2 berriak izan zirela.

Martxoko odol ateraldia-rekin alderatuz, 8 pertsona gutxiago izan ziren uztailan. Hurrengo txanda azaroan izango da.

Jubilatu eta pentsionisten eguna

Datorren irailaren 21ean ospatuko da jubilatutako eta pentsionisten eguna. Goizeko 11etan emango zaio ekitaldiari hasiera trikitilarietara. 11:30ean hasiko da meza na-



Irrintzi dantza taldea Hernialden

Abuztuaren 15ean, Andramari egunean, Irrintzi Alai dantza taldea Hernialdeko jaietan izan zen. Besteak beste, hainbat euskal dantza eta muntaia bat eskaini zituzten. Oso esperientzia polita izan zen herriko dantzarientzat.

gusia. Ondoren, hamaiketakoa izango dute herriko elkarteek eskainia. 14:00etan banatuko zaizkie sariak modalitate ezberdineko irabazleei. 14:30ean, berri, bazkaria izango da herriko frontoian.

Interesatuak irailaren 3tik 16ra joan beharko dute jubilatuen egoitzara, 12:00etatik 13:00etara bitartean. Bazkaria 8 euro ordaindu behar da.

Mikel Lasa Murtzian

Mikel Lasa futbol jokalaria 2 denboraldi igaro ditu Murtzian, 2. A mailan. Aurten, talde hau lehenengo mailara igo den arren, Mikelek 2. mailan jarraituko du Murtzia Hiria taldean. Legorretarra

oso gustura dago Murtzian, batez ere bertako klimagatik.

Ikasturte berria

Irailaren 8an emango dio hasiera Ugara Herri Ikastetxeak 2003-04 ikasturteari. Hiru astetan zehar goizez bakarrik izango dira klase orduak. Haur hezkuntzakoak 9etatik 12:30era eta lehen hezkuntzakoak 9etatik 13:00etara. Urriatik aurrera, berri goiz eta arratsalde hasiko dira, 9etatik 12:30etara goizez eta 14:30etatik 16:30etara arratsalde, asteazken arratsaldeen jai izango dutelarik. Jantoki eta garraio zerbitzua izango da hasieratik.

Zelai Amenabarro

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



- ✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar
- ✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55




GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✕ Depresioak
- ✕ Harremanetarako arazoak
- ✕ Beldurrak
- ✕ Antsiak
- ✕ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Aholkularitza
ASEPLAN
Abokautak - Ekonomilariak
Tel.: 943 887 129
Oriamendi Kalea 15, behea BEASAIN

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak



Giro ederrean ospatu ziren festak

Festa giroa, jendearen parte-hartze bikaina eta herritarren arteko laguntasuna izan dira beste behin aurtengo Andramari jaietan nabarmendu direnak. Lau eguneko egitarauak gustu guztiak asetzeko lain eman zuen, arlo desberdinetan antolatu diren ekin-
tze egundoko arrakasta lortu dute orokorrean.

San Lorentzoak

Txakilikuatroko egunaren inguruan jende ugari hurbildu zen Kortara, bai auzo afarian, bai igande eguerdian. Hirurogei afaltiarrez inguratuta, Izar Erdi baserriko Segundo Zumalakarregik jaso zuen auzoko helduenari eskaintzen zaion omena, eta oroigarria eman zitzaion.

Bezperako mus txapelketan Iñaki Oiarbide eta Iñaki Maizek osatutako bikoteak lortu zuen garaipena.

Jendeak erantzun ona

Herri txikietako festek azken hamarkadan jasan duten gain-

behera somatu arren, jendeak Gabiriako andramariak ahaztuta ez dituela ikusi da. Gaueko giro polita sortu zen lehenengo festa-egunetik, eta kanpoko lagun ugari bertaratu da parrandara.

Ikusle gehien erakarri dituzten ekitaldien artean herri kirol jaialdia aipatu behar. Ikusmina sortu zuen, gazte taldeen arteko lehiaren irrikitan frontoia bete egin baitzen, pelota partidekin bat eginez. Bertsolari jaialdia ere entzuleen gustukoa izan zen.

Harrera beroa duen beste ekitaldi bat, sagardo eta txistor dastaketarena, bertan behera utzi behar izan zen, hila-betetako ur falta guztiak arratsalde erdian bota baitzituen.

Plazako berbenari eta giroari bultzada ematearren txozna jarri da aurtengazte-
en ekimenez eta ahaleginez. Dantzara jendea erraz eraman da horrela, eta helburua aise bete dela bistakoa da. Ia ahaztuta zegoen berezko festa-gunea berreskuratzeko ideia po-

Lehiaketen emaitzak

Bolak: 15ekoan: Felix Maiz. 16koan: Jose M. Ugarte. Bieta-
koa: Joxe Maiz. Gazteetan: Josu Lazkano. 17koan: 1. Iñaki
Maiz, 2. on Aldalur, 3. Iñaki Etxezarreta. Gazteetan: Iñigo
Igartzabal.

Toka: 15 eta 16koan: Juan M. Iñurritegi. Gazteetan: Beñat
Maiz. 17koan: 1. Jesus M. Aramendi, 2. Manolo Redondo, 3.
Felix Maiz. Gazteetan: Gorka Maiz. Emakumeetan: Aloña
Murua

Tiragoma: 1. Xabi Alzelai, 2. Jesus Artola. Gazteetan: Beñat
Maiz. Emakumeetan: Idoia Maiz.

Txirrindu igoerak: Santa Marina: 1. Iñigo Andola. Andra-
mari: 1. Jokin Matxinandiarrena, 2. Jokin Sudupe, 3. J. osu El-
garresta.

San Lorentzo mus txapelketa: 1. Iñaki Oiarbide -Iñaki Maiz.

Pilota partidak: Infantilak: Mikel Asurabarrena-Beñat Maiz
18 /Iñigo Igartzabal-Gorka Maiz 14. Afizionatuak: Agirre-Bi-
teri 9 / Irazustabarrena-Oiarbide 22.

lita izan da kanpoko taberna-
rena.

Koadrilak festa ipintzen

Mozorro gauean koadrila desberdinak moztortuta giro berezia jarri zen plazan, talde batzuk antolatu zuten ikuski-
zunaz gozatuz. San Roke gaueko koadrilen arteko afa-
rian 40 lagun inguru bildu zi-
ren; goizaldean proba bitxiak ere ikusi ahal izan ziren.

Gainontzean, txirrindu igoerak fidel jarraitzen dio tradizioari, lagunaren artean nahiz norbere buruarekin erronkan eginahalak eginez. San Roke Txikiko afari me-

riendak indar pixka bat galdu badu ere festen amaiera leiala izaten darrai.

Aztiriko festen berri

Dagoeneko urrun samar badi-
tugu ere, santamañek ere eman zuten zer ikusia eta kontatua. Aztiriarren topagune bilakatzen dira uztaileko festak, eta herritar askok ere ez dituzte galtzen. Aurtengo berrikuntza handiena Motxo-
rrotik egin den txirrindu igoera izan da, afizionatuen mailako probaren faltan. Errota-
berriko Iñigo Andolak lortu zuen garaipena.

Aimar Maiz

Kizkitzako eguna

Irailaren 8an, Kizkitzako amaren eguna ospatuko da Kizkitzako ermitaren inguruan.

Ohi bezala, eguerdiko 12etan meza izango da eta ondoren, egun guztian, Bultzola anaien trikikitixa.



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua eta karta.

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

Sanbartolomeak amaitu eta denok lanera

Abuztuaren 22, 23, 24, 25, 30 eta 31n izan dira aurten San Bartolome jaiak. Eguraldi aterria eta giro ederra izan zenik ezin ukatu.

Goizean goiz, **txirrindu frogak** egin ziren herriko haurren artean eta ondoren Apeadero-ra Igoera egin zen. Goizeko 9,30etan hasi ziren txirrindu frogak, festen hasiera adierazten duen txupinazoa bota aurretik sariak jasota zeuden zegamar txirrindulariak. Hona hemen emaitzak, hurrenez hurren lehen hiru postuak: 7 urtetik beherakoetan, Aitor Oiarbide, Xabier Azurmendi eta Uxue Arrizabalaga; 7, 8 eta 9 urtekoetan, Ibai Arrizabalaga, Imanol Otaegi eta Luis Malkorra; 10 eta 11 urtekoetan, Joseba Olaziregi, Unai Atxa eta Aritz Olaziregi; 12 eta 13 urtekoetan, Joseba Arakama, Kepa Soraluze eta Jabier Estevez. Apeadero-ko igoera berriz, honela bukatu zen: Ander Perez garai-le, bigarren Xabier Goiburu eta hirugarren Iñaki Lasa.

Abuztuaren 22ko **disfrazak** eta arratsaldeko herritarren arteko futbito txapelketak eguneko umorea eta lehia ipini zuten. Disfrazetako sariak honako hauek irabazi zituzten:

Bakarkako saria: Iñigo Atxa. Giro gehien sortu zuen taldea: Hawaianoen taldea. Disfraz landuenaren saria: Piraten taldea.

Bestalde arratsaldeko **futbol txapelketako** finala, Txapeldun Shalky 07 taldea izan zen.

Abuztuaren 23an, herriko elkarte gastronomikoen arteko **paella lehiaketa** burutu zen eta aurten ere Tartalo Elkartek eraman du lehen saria Anartz Goia eta Eider Arrieta bikotearekin eta bigarren saria, Jubilatuen Elkartek irabazi zuen, Mari Karmen Artano eta Maritxu Galarraga bikotearekin. Ondoren paella dastatzea egin zen bertaratuaren artean.

Herri mailako **plater hausetan** gaztetxoaren arteko mailan Joseba Arakamak eta nagusien mailan Aitor Bitartek irabazi zuten.

Txarapen herritarren arteko **bolo jokoa**n, aurten, haurretan, Samuel Bonikowskyk irabazi zuen. Helduetan, berriz, Juan Inazio Galdosek.

Iluntzean herri kirolen ikuskizuna izan genuen pilotalekuan.

Bestalde, aurten jaietako programaren azala aukeratzeko egin den **IV. Argazki lehiaketaren** irabazlea Leire Igoa izan da.

San Bartolome egunean, berriz, herriko dantzari txiki-kien saioa izan genuen plazan, Tobera Musika Eskolak prestatuak, eta herriko agintari-ek ere Soka Dantza dantza-tu zuten. Eguerdieguerdian jakin genuen, herriko **lorategi zainduenaren aurtengo saria** Maite Albizuri Larreko base-rrikoak irabazi duela eta bal-koi eta leihoetako saria, berriz, Mariaje Telleriak. Arratsaldean **pilota partiduak** izan ziren kiroldegian urteroko le-

Anbulatorio berria, irailaren 15etik aurrera
Osakidetzatik jakinarazi dutenez, irailaren 15ean jarriko dute martxan Olarango anbulatorio berria. Beraz, Ibarretako anbulatorioan ez da zerbitzurik emango data horretatik aurrera.

Gizarte laguntzailearen ordutegi berria
Dakizuenez, Begoña Olarte, Udaleko Gizarte laguntzaileak inguruko herrietan ere bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Esan, Zegaman, irailaren 1etik aurrera, ordutegi berria izango duela eta bere zerbitzuak behar dituzuenok hona hemen astero Zegaman izango duen ordutegia: astelehenetan, 8:30-13:45; asteartetan, 8:30-12:00; eta ostegunetan, 8:30-11:15.

Kultur Etxe inguruko parkearen berrurbanizazio lanen adjudikazioa
Kultur Etxe ondoko parkea eraberritzeko proiektua, Fernando Carazo Amundarain arkitektoak idatzia, onartu du Udalak eta bere berrurbanizazio lanak lehiaketa publikora ere ateratu zituen bere egunean. Honen ondorioz, hurrengo Osoko Bilkuran egingo da lanen adjudikazioa berehala obrak has daitezen.

San Martinetako torneo
San Martinetan jokatu da herritarren arteko eskuz binakako torneo eta bertan parte hartu nahi duenak, izena udaletxean eman behar du. Zozketa irailaren 9an egingo da udaletxean bertan, 20:30ean. Izena emandakoak bertan egotea beharrezkoa da.

Inprentakoek bazkaria
Zegamako inprentan lanean ibilitakoek lagunarteko 2. bazkaria prestatu dute, irailaren 14rako. Olaberri Gianean egingo da eta izena honako telefono hauetan eman behar da: 943801289 (Kontxi) eta 943887707 (Pilar). Bertara joateko asmoa baduzue, izena, irailaren 5etik aurrera eman dezazuen eskatu dute antolatzaileek.

Abuztuaren 30ean, tabernari eta txosnek antolaturik, buruhandi eta berbena izan ziren iluntzean, herriko haurrak gustura ibili ziren kalean gora eta kalean behera, buruhandiak zirikatuz.

Bestalde esan, abuztuaren 31n korritu zen **San Bartolome txirrindu proba**, Jordi Grau, Würts-Once taldekoak irabazi zuela.

Bukatzeke aipatu, Kultur Etxean ere, eskulan ikusgarriak egon zirela eta baita Aitxuri Herri Eskolako haurren trebeziak ere.

Edurne Albizu



Oporren ondoren Kultur astea

Iraila astearekin batera, opor-
rrak bukatuta, denok berriro
lanera itzultzeko garaia hel-
du da, baita udari errepasoa
ematekoa ere.

Abuztuko Andramari jaiak
giro ederrean igaro ziren, An-
dramari bezperako txekor ja-
na arrakastatsua gertatu zen,
herriko eta inguruko herrieta-
ko jende ugari bildu zen txe-
korra jan eta sagardoa dasta-
tzera.

Bola Txapelketetan, herri-
tarrak izan ziren nagusi; An-

dramari egunean Antonio
Alustizak irabazi zuen, Mar-
tin Retegi bigarrena eta Joxe
Lazkano hirugarrenarekin
37na birletara berdindu ondo-
rengo desenpatean; lehenen-
go herritarrarena Aitziber
Makazagak jaso zuen 30 bir-
lekin. San Roke egunean An-
tonio Alustiza lehenengo eta
Luis Aizpeolea bigarren izan
ziren, emakumezkoetan Ai-
tziber Makazagak irabazi
zuen.



San Roke eguneko Zerain-
go Igoera txirrinduz, txikie-
nen mailan Andoni Alustiza
izan zen lehenengo, Mikel
Oria bigarren, eta Jokin In-
txausti hirugarren. Gaztetxo-
en mailan Eneko Arzelus,
Iñaki Intxausti eta Oier Oiar-
bide. Helduen mailan Xabi
Goiburua, Jon Arzelus, eta Jon
Muñoa.

Arantzazura

Arantzazura erromesaldia,
aurreko asteburuan izan zen.
Larunbatean 40 lagun joan
ziren oinez, Urbian bazkaldu
eta Segurako eta Mutiloako
erromesekin batera Arantza-
zun elizkizuna ospatu ondo-
ren autobusez Zeraina itzu-
liz. Igandean autobusez joan-
etorria egin zen Arantzazura.

Kultur astea

Irailaren 13tik 21etara, Kultur Astea izango dugu, ondorengo
egitarauarekin:

Irailak 13, larunbata: 16:00etan: haurrentzat Marrazki Lehiake-
ta, ondoren merienda. **21:00etan:** Berriaren aldeko bertso afa-
ria, Iker Zubeldia, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxea ber-
tsolariekin. Afari honetarako txartelak Mandioa dendan izango
dira salgai, astelehena hilak 8ra arte, 20 eurotan.

Irailak 14, igandea: Jubilatuen eguna: 11:00etan: Meza Nagusia,
Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre bertsolariekin. **Ondoren:**
Ataungo Eate abesbatzaren emanaldia. **14:00etan:** Bazkaria.
Ondoren: Etxeberria eta Agirre bertsolariak eta Ainhoa Mun-
duate eta Nagore Nograro trikitilariak, bazkalondorena alaitze-
ko.

Irailak 15, astelehena: Mikel Zalbidek, 'Hiri, Zuri, Berorri', hi-
tzaldia, 20:30ean.

Irailak 16, asteartea: Jakoba Errekondok 'Landareen bizitza; gal-
dera-erantzunak', hitzaldia, 20:30ean.

Irailak 17, asteazkena: Drogari buruzko hitzaldia, 20:30ean.

Irailak 18, osteguna: Julian Bereziartuak 'Azaleko gaixotasu-
nak', hitzaldia, 20:30ean.

Irailak 19, ostirala: Jon Etxeberriaren 'Mendia eta Eskalada' dia-
porama, 20:30ean.

Irailak 21, igandea: Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren IX.
azoka.

Mari Flor Mendizabal



Badatoz Santafeak

Urtero moduan, urriaren ha-
sieran izango dira Zaldibiako
jaiak. Antolaketa lanak dago-
eneko hasiak dira. Atzo, irai-
laren 4an, udaletxeak horren
inguruan hitz egiteko deituri-
ko bilera izan zen Kultur
Etxean. Txosna Batzordeak
ere ekin dio elkartzeari eta
aurten ezustez beteriko jaiak
izango ditugu.

Oraingoz, lehen aldaketa
zein izango den adierazi du
Batzordeak. Aurtengo Santa
Fe jaietan ez da txosnarik
egongo, 2003ko festetan kar-
pa erraldoia jarriko da herriko
plazan. Bertan, pintxoak edo-
ta zerbeza freskoa topatu
ahalko dugu. Goizaldean ire-
ki eta gaueko ordu txikiak ar-
te ez da itxiko karpa.



Kontuak kontu, txosnekin
edo gabe, lanerako prest da-
goen jendea behar da orain-
goan ere, guztion artean erra-
zagoa da. Jai parte hartzaile
eta alaiak igaro ahal izateko

denok egin behar dugu lana.
Laister, Txosna Batzordeak
bolondres gisa lan egiteko ze-
rendak irekiko ditu.

Eduñe Soraluze

Euskal jaiak

Irailarekin batera, euskal jaien garaia izaten da Ordizian. Egunk garrantzitsuena asteazkenekoa, izaten bada ere, irailaren 5etik 14ra bitartean bada zer ikusi, zer entzun eta zertaz gozaturik. 12-13. orrietan duzue egitarau osoa.

Datozen lerrootan, hiru ekitaldi nabarmenduko ditugu: irailaren 12ko Kantu Afaria, irailaren 14ko Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketako sari banaketa eta Galizia dantzarien saioa.

Kantu Afaria

Aurten ere, Euskal Jaien barruan, Kantu Afaria antolatu du Hitzarok, lagun giroan bildu eta euskal abestiak kantatzeko ohitura bultzatzen jarraitzeko helburuarekin. Kantu afaria irailaren 12an izango da, Garagartza plazan, gaueko 9etan.

Lagarrena izango da aurtengo Kantu Afaria. Iaz 30 lagunetik gora bildu zen afarian eta iazko marka gainditzen saiatuko dira aurten Hitzarokoak. Euskal kantutegi tradizionalako 36 abesti biltzen dituen liburuxka argitaratu dute, Laguntasuna Errondailakoei batera abestiak aukeratu eta gero. Hitzaroren proposamenari erantzunez, Laguntasunakoak izango dira Kantu Afaria animatu edo dinamizatuko dutenak.

Hitzarokoek herriko ikas-tetxe, elkarte eta erakunde ez-

berdinei dei berezia egin die taldeak osatu eta abestia aukeratuta oholza gaineen kantuan egin dezaten. Dagoeneko 9 taldek hitza emana dute.

Oholza gaineen abestera igotzen direnei kantu-liburu bana eta txistorra otartekoa doan banatuko zaie. Gainerakoei, berriz, bi euro kobratuko zaizkie kanta-liburuaren eta txorizo otartekoaren truke. Goiagi okindegiak prestatuko ditu otartekoak. Aurten, dena den, bada berrikuntza bat: sagardo kupela jarriko dute Hitzarokoek plazan. Sagardoa txotxetik, doan edan ahal izango da.

Galiziarren dantza saioa

Irailaren 14an, iluntzeko 8etan, dantza ikuskizuna izango da, Plaza Nagusian. Pontevedrako Sta. Mª de Tebra (Tomiño) herriko 'Grupo etnográfico Airiños de Tebra' dantza taldearen saioa izango da. Gaita doinuen laguntzarekin osatutako ikuskizuna eskainiko dute galiziarrek. Esperientzia handiko taldea da galiziarrena. Munduko hainbat txokotan emanaldiak egin dituen, besteak beste, Argentinan. Jakintza eta Aurtzaka dantza taldeek uda honetan galiziarrekin sortutako harremanaren ondorioa da. Izan ere, iaz udan Mallorcan izan baziren ere, aurten Galizian izan dira Beasaingo eta Ordiziako dantzariak.



Lazkao Txiki XII. Bertsopaper Lehiaketaren sari banaketa

Goierriko Bertso Eskolak Ordiziako Udalarekin batera antolatu duen bertsopaper lehiaketan honako hauek izan dira aurtengo irabazleak:

Gaztetxoetan (13 urte artekoak): 1. Mikel Dorronsoro (Ataun), 2. Amaia Iturrioz (Urretxu) eta 3. Desert. Gaia denentzat: egunkaria irakurtzen dut.

Gazteetan (14-18 urte bitartekoak): 1. Aitor Urbietta (Zarautz), gaia, pilota partida eskuko minez; 2. Mirari Martiarena (Oiartzun), gaia, bizitza alua; eta 3. Josu Martinez (Bilbo), gaia, goiko pisuko bizilagunaren bertsoak.

Helduetan: 1. Nikolas Zendoia (Zarautz), gaia, astoa jo diñagu; 2. Alaitz Sarasola (Ordizia), gaia, erdizka; eta 3. Nikolas Zendoia (Zarautz), gaia, kaioa.

Sari gisa dirua izango dute guztiek ere, helduetan lehenak 300 euro, 2.ak 240 eta 3.enak 180, gazteetan 180, 120 eta 60 euro hurrenez hurren eta gaztetxoetan 120, 60 eta 30 euro. Sari banaketa irailaren 14an izango da, igandea, eguerdiko 12etan Barrena Kultur Etxean eta sariak banatzen Joxe Miel Iztueta 'Lazkao Txiki' zenaren ilobak, Argi Berri Elkarteko lehendakaria eta alkatea izango dira. Saria jasotzean bakoitzak bere bertsoak kantatuko ditu. Ondoren luntxa izango da Argi Berri Elkartean. Amaitzeko aipatu gaztetxoetan 4 lan jasotzeak, gazteetan 8 eta helduetan 12.

Bestalde aipatu bezperan saio berezia izango dela 22:30ean Herri Antzokian. Xukan taldeak 'Iturrian zer dago' ikuskizuna taularatuko du. Bertan bertsoak, dantza eta trikita-nahastuko dira ikusentzuleen gozamenerako.

Aitor Calvillo

Labur-labur

● 23 urtetik gora giltzaperatuta eman ondoren laster izango dugu berriro etxean **Eugenio Irastorza**. Irailean bertan aske uztekoak dira eta izango duzue informazio gehiago hurrengo alean. Legez orain 6 urte kalean behar zuen Eugeniok.

● **Kale Nagusiko lanak amaitu gabe** dauden honetan (euskal jaien ondoren ekingo zaie lanei) Urdaneta kalean beste batzuk hasi dira. Iberdrola eta Telefonikako hodi berriak sartzeko ari dira. Lanek asko iraungo ez badute ere Malkaskoraino iritsi beharrekoak direnez aldaketak ekarriko ditu trafikoa.

● **Iker Iraola** futbol jokalaria espainiar ligako 2ºB mailan arituko da aurtengoan ere. Baina aurten berriro ere taldez aldatuta. Iazko denboraldia Extremadurako Jerez de los Caballeros taldean aritu ondoren oraingoan berriro ere Fuerteventurako Playas de Jandian arituko da. Orain bi denboraldi ere hor aritu zen.

ALOKAIRUA ETA SALMENTA ZERBITZUA

AGROTRESNAK



BEASAIN

Salbatore auzoa

Tel.: 943 164 103

Faxa: 943 164 736

ALTSASU

Gasteiz Etorbidea, 8

Tel.: 948 562 805

Faxa: 948 564 156



SU EGURRETARAKO TRESNERIA



TRAKTORETAN AUKERA OPAROENA



DESBROZADORAK:

BASO, ZELAI ETA SAGASTIETARAKO

Gure produktuak zerbitzu onenarekin bermatzen ditugu



Euskal Jaiak

ORDIZIA

Irailaren 5etik 13ra

2003 urtea

Irailak 10 Asteazkena

**Gazta, abere, fruitu, barazki
eta lepagorri oilaskoen
Lehiaketa**

Antolatzailea



Ordiziako Udala

LAGUNTZAILEAK

Goimen Elkartea

Idiazabal Jatorrizko Izendapena

HEBE

Idiazabalgo Gaztaren Kofradia



kutxa

zuri esker



EUSKO JAURLARITZA



Gipuzkoako Foru Aldundia

2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZEKO maila guztiak, ALFABETATZEA, HIZKUTZA ESKARIZUNAK eta EGA.

Erritmoa:


Irailaren 15etik ekainaren 22ra
Astean 10 ordu
Astean 8 ordu
Astean 4 ordu

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 1etik 19ra.

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesional, familiar, kultural, egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAHETU!

Bete ezazu kupoi hau zure datu pertsonalekin eta bidal egiguzu edo utz ezazu gertuen daukazu Udal Euskaltegia.

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

2003-2004 ikasturteko MATRIKULAREN zozketa: 2003ko irailaren 29an.

BEASAINgo Udal Euskaltegia-Lunada, San Martin plaza, 29/0200 BEASAIN
Tel.: 943 01 61 00/24 orduzuzendak: 124Rbeasain.net




Izena:.....
Abizena:.....
Aukeratutako eskaintza:.....
Tel.:.....

MAIOLAS BILAGUTITZA

ARAMAKO TABERNA

Aramako plazan

Tel.: 943 888 953



Toki lasaia eta giro euskalduna

Eguneroko menua 7,20 euro

Asteburuko menuak 15 euro

Kaxuelitak

Pintxoak

Plater konbinatuak

Udako terraza

San Gregorioko jaiak

Irailak 5, ostirala:

Koadrila eguna:

12:30ean: Koadrilen juntai-
zoo plazan.

14:30ean: Koadrila bazkaria
Urbitarte sagardotegian
Iraunkorrek txarangak alaitu-
rik.

18:00etan: Erreka jaitiera.
Ondoren koadrilen arteko jo-
lasak.

20:00etan: Patata tortila
lehiaketa plazan.

21:00etan: Koadrila afaria
Zelai frontoian herriko ber-
tsolari gazteek alaiturik

00:00etan: Ene Bada taldea-
rekin dantzaldia goizaldera
arte.

Irailak 6, larunbata:

Umeen eguna:

10:00etan: Ume eta antola-
tzaileen juntaizoa plazan
egun osoan zehar umeentzat
puzgarriak egongo dira Zelai
frontoian.

10:30ean: Taldeen osaketa.
Txikientzat: tailerrak (margo-
keta, eskulanak,...). Handien-
tzat: txuri-beltz jokoa eta he-
rri kirolak.

12:00etan: Kalejira bu-
ruhaundi eta trikitilarietara.

12:30ean: Txotxongiloak
Zelai frontoian.

14:00etan: Umeentzako baz-
karia Zelai frontoian.

16:00etan: Txirrindulari afi-
zionatuen laisterketa.

19:00etan: Txirrindulari afi-
zionatuen laisterketaren
amaiera eta sari banaketa.
"Euskal Presoak Euskal He-
rrira" kontzentrazioa txirrind-
ulari probako helmugan.

20:00etan: Herriko Otsoak
dantza taldearen dantza saioa
plazan.

22:00etan: 'Rock' kontzer-
tua Artadi Kultur Elkartearen.
Sarrera dohainik. Lobo Elec-
trico, Los Padrinos eta Cap-
tain Nemo.

Gauen zehar: Disfraz agua.

01:00etan: Irats taldearen
dantzaldia.

01:30ean: Herriko preso,
errefuxiatu eta deportatuen
gaineko oroitzapen ekitaldia.

Ondoren: Irats taldearen
dantzaldia goizalderarte.

Egunsentira arte: Elektrotu-
na txarangarekin auzo anima-
zioa.

Irailak 7, igandea:

12:30ean: Esku pelota parti-
dak. Lehenengo partida
Ataundar gaztetxoaren artekoa:
Xiker Zeberio-Jon Ander Al-
bisu / Iban Goikoetxea-Jon
Arratibel. Bigarren partida
Igo mailako afizionatuen ar-
tekoa: Sorarrain-Mintegi /
Huizi-Baez I.

13:30ean: Asto karrera.

18:00etan: Sarako dantza eta
musika taldearen emanaldia
Zelai frontoian.

18:45ean: Eate abesbatza Ze-

Sukia bikain Katalunian

Egoitz Sukia, Tarragonako Nás-
tic futbol taldeko jokalaria ezin
hobeto eman dio hasiera denbo-
raldi berriari. Irungo Real Union
taldeko jokalaria ohiak aurtan fi-
txatu du Nástic futbol taldeare-
kin eta bere estraineko partida
gol eta guzti egin du.



Liga hasi aurretik urtero jo-
katu ohi da Tarragonan 'Ciutat
de Tarragona' trofeoa, aurtan
Nástic eta Lleida talde katalu-
niarrak izan dira nor baino nor.

Ataundarraren taldea 2-leko emaitzaz gailendu zitzaion Llei-
dari, Egoitzek taldearen lehen gola sartu zuen, hala nola lasai-
tasuna eta garaipenerako ateak ireki zituen lehen gola.

Ondorioz, 2-leko emaitzarekin Nástic futbol taldearentzat
izan da aurtengo Ciutat de Tarragona trofeoa. Bere debutean,
ataundarra txukun aritu zen, partida polita jokatu zuen eta
amaiera gol bikain batekin eman zion.

Aipatu behar da, baita ere, Egoitz Sukia ez zela bakarrik
egon bere estraineko partidaren, herritar eta lagunaren babesa eta
berotasuna ez zitzaizkion falta izan. Ataundarrek gogotsu
eman zizkieten animoak jokalaria eta baita taldeari ere.

Auzoeta Kiroldegia

Ikasturte berriari begira, pilota, areto futbola, etab. etarako erre-
serbak egin nahi dituzuenok kiroldegian bertan egin ditzake-
zue, bertara hurreratuaz edota 943180384 telefonora deituaz.
Kiroldegiko arduraduna den Pako Urrestarazuk informazio
gehiago eta zabalagoa eskainiko dizue bertaratzen zaretenoi.

Ikasturte berria irailaren 10ean

J.M. Barandiaran Herri Ikastetxeak aditzera eman digunez,
2003-2004 ikasturte berriari irailaren 10ean ekingo diote. Goi-
zez hasiko dituzte klaseak haurrek.

lai frontoian.

19:15ean: Sarako gazteen
(2003.urteko Ipar Euskal He-
rriko txapeldunak) Xistera
erakustaldia Zelai frontoian.

Ondoren: Ataungo artzainen
gazta dastaketa ardoaz lagun-
durik.

Doltza Barandiaran

Aire berriak

Agurtzane Bikuñak azken
urte hauetan burutu duen
lan eskeragaren ostean, herri-
ko gazte talde batek hartu
diogu erreleboa. Txoko hau
ahalik eta ondoen taxutzen
saiauko gara, gogoia eta ilu-
sioa behintzat ez zaizkigu
faltako.

GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN



Igartza auzoko jaiak

Irailak 5, ostirala:

19:00etan: Kilikien eta txistularien irteera. Txupinazoa.

20:00etan: T'Omblogo Teatra antzerkia taldearen 'Kaxibatxe de Kutxina' antzez-lana.

23:30ean: Dantzaldia Tilin-Tolon eta Dogma de Fe taldeekin.

Irailak 6, larunbata:

10:00etan: Igeriketa probak.

12:00etan: Marrazki lehiaketa eta graffiti erakusketa.

15:00etan: VI. Igartza Saria, Gezi tiraketa, Euskadiko kanporaketa.

16:30ean: Mus txapelketa Loinazpen. Haur jolasak Iturri taldearekin.

17:00etan: Toka eta igel txapelketa.

18:00etan: Pilota partidak. Haurretan, Arratibel-Mendia Urteaga-Iraolaren aurka. Afizionatuetan, Agirre-Esnaola Amundarain-Mujikaren aurka.

19:00etan: Arkupe eta Ostadar dantza taldeen ekitaldia.

24:00etan: Briganthya taldearekin dantzaldia.

Irailak 7, igandea:

12:30ean: Kilikien eta txistularien irteera.

13:00etan: Auzotarren txikiteoa Koxkola txarangarekin.

18:00etan: Herri kirolak: harri jasotzen Goenatxo II eta Elosukorta eta aizkoran, Azurmendi eta Arrospide.

19:30ean: Bertso jaialdia.

20:30ean: Auzotarren txikiteoa Koxkola txarangarekin.

Beasainmendiko jaiak

Irailaren 6an eta 7an Agortan ospatuko dira Beasainmendiko jaiak. Bi egunetarako egitaraua antolatu du Beasainmendiko Elkartek. Bihar, irailak 6, herri afaria izango da gaueko 9etan, Donostiako trikitixa lagun.

Iganderako prestatutako egitaraua hurrengoak duzue: goizeko 8etan, suziariak; 11etan herri meza trikitilari eta bertsolariekin; 11,30etan, Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongi etorria; 12etan, Laja eta Mikel trikitilariak; ondoren, Mikel Mendizabal eta Sebastian Lizaso bertsolariak; 12:30ean, apustua, Usurbera igoera, bat bizikletaz eta bi korrika; 1ean, Eizmendi baserriko Teresa Mendizabal auzotarrari omenaldia; ondoren, Jokinen oroimenean aureskua eta lore eskaintza; 1,30etan, herri kirolak, Azurmendi eta Olasagasti aizkolariak eta Perurena aita-semeak harri-jasotzaileak; 2,30etan, bazkari herrikoa; 5etan, haur jolasak eta 6,30etan Laja eta Mikel trikitilariak.



Adineko pertsonen eguna irailaren 21ean

Antzizar Kiroldegian egingo den ohiko bazkarirako izena emateko epea irailaren 9tik 18ra bitartean izango da. Udaleko Harrera bulegoan egin behar da, 8:30etik 13:30era. Nortasun Agiria aurkeztu beharko da eta hiru euro ordaindu. 65 urtez goitiko beasaindar eta beren ezkontideek izango dute bazkarira joateko aukera.

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
Harategia - Urdaitegia
Festa onak pasa!
Saltsamendi
☎ 943 888 646
Igartza Oleta, 12 BEASAIN

JULIAN MUJICA
Harategi - Urdaitegia
Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 10
☎ 943 88 01 96
BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l
Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

ANZIZAR
Taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17 BEASAIN

Zure seme-alabak...
Nahi duena esateko zailtasuna agertzen badu edo ez bazaio ulertzen; soinuak ez baditu egoki ahozkatzen edo totelka egiten badu...
Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa
Nagusia 2 1^oEsk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35

ahots Logopedia

AKELARRE
TABERNA
LOTO - PRIMITIVA - 1 X 2
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 08 61 62
BEASAIN

Udalik gabe

"Udala blokeatuta dago. Momentu honetan Itsasondoko Udalak ezin du Osoko Bilkurarik ospatu eta edozein erabaki hartu, beraz erabakiak mugatuak dira. Esate baterako ez dakigu zer gertatuko den gasaren arazoarekin, ez eta beste hainbat gai garrantzitsurekin ere", dio funtzio-tan dagoen Udalak Zubipe al-dizkarian. Herriko jaiak antolatzea ere zalantzan dago. "Guk, behin eta berriz esan dugun bezala, lan egiten jarraitzeko asmoa eta gogoia adierazi dugu. Baina zalantzak ere sortzen zaizkigu. Jai Batzordearen osaketarako deia egin zenean, jende gutxi agertu zen. Guk hartu behar al dugu erantzukizuna... edo

herritarrek?", galdetzen du funtzio-tan dagoen Udalak.

Uztailaren 10ean herritarrei egoera azaltzeko batzarra egin zuen funtzio-tan dagoen udalak. "EAJk Herri Ekimenarekin hitz egiteari muzin egiten diola ikusirik, alternatiba bezala, herri erakunde (jubilatuek, eskola...) eta herritarrez osaturiko talde bat antolatu eta EAJrengana jotzea proposatzen da, arazoa behingoz argitzeko. Lehenbailehen gauzak argitzea eta herritarren partaidetzarekin Udala martxan jartzea espero dugu, esan bezala, gu prest gaude, baina konponketaren bidea beste batzuen interes eta eskuetan dago", gaineratu du Udalak.

Egoera blokeatuta

Maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan hiru hautagai zerrenda aurkeztu ziren Itsasondon: Gu Geu Herri Ekimena (156 boto eskuratu zituen), EAJ (150 boto) eta PP (13 boto).

Gu Geu taldea izan zen boto gehien eskuratu zuena, baina aurretik ilegalizatua izan zenez, EAJkoak ziren Udalaren ordezkari, Juan Lasa beasaindarra buru zela.

Hauek dena den, uko egin zioten karguari Udala osatzeko egunean, ekainaren 14an. Gauzak honela, 48 ordu zituen EAJk beste zerrenda bat aurkezteko. EAJk ez zuen beste zerrendarik aurkeztu. Zubipe al-dizkariak argitzen duenez, "EAJri dagokio 'Batzorde Gestigileak' osatzea. Legalki beraiei 7 zinegotzi dagozkie. Oraingoz, ez dakigu batzorde hori nortzuk osatuko duten, EAJko kideak (herritarrek, kanpotarrek?) edo itsasondotarrez osaturiko Batzorde anitz bati aukera emango dioten. Gure ustez herritarrok merezi dugun errespetuagatik, eta dagokigun 'eskubideaz' baliatuz, maiatzaren 25ean bozkatzera joan ginenon artean aukeratuak izan beharko lirateke. Urrats hau ematen ez badute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geldituko da aipatutako Batzorde Gestigilearen osaketa, bertan edozein pertsona jar dezakeelarik".

Urkiko jaiak

Irailaren 13an eta 14an ospatuko dira Urkiko jaiak. Eguraldi eguzkitsua egingo duenaren esperantzan, egitaraua prest dute dagoneko antolatzaileek:

Irailak 13, larunbata:

19:00etan: Suziri jaurtiketa festak hasteko.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: XXI. Mus txapelketa.

23:00etan: Olarte anaiak trikitilariak.

Irailak 14, igandea:

10:00etan: Meza Nagusia.

11:00etan: Hamaiketakoa, Axier Olarte eta Eugenio 'Lutxurdio' trikitilariekin.

14:30ean: Bazkaria.

19:30ean: Aizkora desafioa: Olasagasti eta Arrospide, Azurmendi eta Ugartebururen aurka. Argazkian ikusten den, 3,70 metroko gerri buelta duen enborrari korte bana eman behar-ko diote. Olasagasti eta Arrospidek zutika eta Azurmendik eta Ugarteburuk etzanda. Jokoa: 8 afari.

20:00etan: Olarte eta 'Lutxurdio' trikitilariak.



Garagardo festa asteburuan

Ijitu Kirol Elkartek eta Iturri Txiki Guraso Elkartek garagardo festa antolatu dute irailaren 5etik 7ra. Garagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da pilotalekuan, arratsaldeko 6etatik aurrera. Janaria ere aukeran izango da. Herriko haurren udako kanpaina finantzatzeko erabiliko da bertan aterako den dirua.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA



Probidentziako Ahizpen mendeurrena

Probidentziako Ahizpak espainiar estatura iritsi zireneko mendeurrena ospatu zen Idiazabalen uztailearen 26an. Parrokian, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak emandako mezarekin bukatu zituzten mojek urtean zehar egindako ospakizunak. Ekitaldian, herritar guztien izenean, Udalak eta parrokiak oroigarriak eskaini zizkieten eta ondoren hamaiketako eskaini zuten mojek.

Probidentziako Ahizpak, 1941ean iritsi ziren Idiazabala. Aurretik, ordea, Euskal Herrian barrena ibilbide luzea zuten eginda. Probidentziako Ahizpek Frantzian zuten jatorria. XX. mendearen hasieran han zituzten komentu eta eskola guztiak. 1902an, Frantziako agintariek erlijioa erakustea galarazi egin zuten. Probidentziako Ahizpek eskola guztiak itxi beharra izan zituzten eta egoera ikusita herrialdetik kanpora alde egitea erabaki zuten. 1903an muga pasatuta Gipuzkoara iritsi eta Donostian ezarri zuten beraien lehendabiziko etxea. Garai zailak ziren. Zarautzen, Lasarten, Aretxabaletan, As teasun, Orion eta Urnietan izan zituzten etxeak baina gehienak itxi beharra izan zituzten.

Frantzia utzi zutenetik, gaixoei laguntzen eta irakas-kuntzan aritzen ziren mojak. 1941ean, Idiazabalen, Torre etxean zegoen erietxeko mediku batek lau moja eskatu zituen berarekin lanean aritzeko. Hor hasi zen Probidentziako Ahizpen eta Idiazabalen arteko hartuemana.

Bigarren mundu gerrak, herrialdeen arteko mugak ixtea ekarri zuen. Mugaren alde honetan bokazio ugari zegoen, baina nobiziadoda Frantzian (Lectoure herrian) zegoen eta bertara iristea ezinezkoa zen. Hori ikusita Probidentziako Ahizpek espainiar estatuko lehendabiziko nobiziadoda Idiazabalen irekitzea erabaki zuten. Herri txikia, lasaia eta trenbidetik 6 kilometrorra zegoela aipatzen dira Idiazabal aukeratzeko arrazoiaren artean. 1942an, Vatikanoko baimena lortu ondoren, Arraizenean jarri zuten nobiziadoda. Gasteizko Gotzaindegiak, nobiziadoda ixteko agindua eman zuen, baina ez zen horrelakorik gertatu. 1943ko uztailearen 26an, 6 nobizia moja izendatu zituzten. Probidentziako Ahizpak, egoitza handiago baten bila hasi ziren orduan. 1944an Zubialde etxea erosi zuten, gaur egun komentua dagoen lekua.

Garagardo Festa

Irailaren 12, 13 eta 14an ospatuko da Idiazabalgo lehendabiziko Garagardo Festa. Areto futboleko taldeek duten diru faltari aurre egiteko antolatu dute ekimena. Garagardo festa Igarondo pilotalekuan egingo da, iraileko bigarren asteburuan, arratsaldeko 7etatik goizaldeko 1era. 12 garagardo mota dastatzeko aukera izango da eta hainbat jaki ere eskainiko dituzte.

Larunbatean (irailak 13) gainera 24 orduko areto futbol lehiaketa jokatu da Zelaako kiroldegian. Parte hartu nahi duenak irailaren 9a baino lehen eman behar du izena 679 169 578 telefonora deituta.

Kirol Ikastaroak

Udalak eta Zelaako kiroldegiak ikasturte berrirako kirol eskaintza prest dute. Jubilatuentzako soinketa, aerobika, soinketa terapeutikoa, yoga eta mantenimendu soinketa izango da. Aerobika irailaren 15ean hasiko da eta gainerakoak urriaren 1ean. Izena Udaletxean eman liteke (goizez eta arratsaldez).

KZ gunea

Abuztuko oporren ondoren, KZ gunea berriro ere zabalik dago. Irailaren 12ra arte goizetan (9:00-13:00) irekiko dute eta Irailaren 15etik urriaren 3ra arratsaldetan (16:00-22:00). 20 orduko ikastaroa irailaren 8tik 19ra izango da (9:00-11:00).

Musika Eskola

Ikasturte berrirako Hizkuntza Musikala eta Musika tresnetan izena eman dutenek bilera izango dute irailaren 9an (asteartea) ordutegiak jartzeko. Hizkuntza Musikalekoen bilera 15:30ean eta Musika tresnetakoek 16:00etan.

Egoitza berria, txiki geratu zen neska asko iristen baitzen komentura moja izateko. Zailtasun ekonomiko askorekin, baina azkenean lortu zuten Zubialde etxea handitzea. Gaur egun duen itxura hartzen hasi zen orduan. 1949ko urrian inauguratu zuten egoitza berria. Idiazabalgoa, espainiar estatuko Probidentziako Ahizpen etxe nagusi bihurtu zen. 50garren hamarkada oparoa izan zen mojentzat. Argazkian 1957-59 urte artean moja sartutakoak. Etengabe iristen ziren neskak nobiziadoda. Urte ezin hobekak izan ziren. Mundu guztian barrena zabaldu zituzten etxeak eta beharra zegoen lekuetan laguntzen aritu ziren.

Herrira iritsi zirenetik, Probidentziako Ahizpek hartu-eman estua izan dute idiazabaldarrekin. Irakasle, erizain edota katekista lanak egin dituzte herrian. Orain, Idiazabalgo komentua berriro

ere beteta dago. Baina edade-tutako eta gaixotutako ahizpak daude bertan. Hori da gaur egun komentuak duen lehentasuna: moja horiei zerbitzua eta arreta eskaintzea.

Benediktarrak

Fraille Benediktarrak Frantziatik Idiazabala (gero Lazkaora joan ziren) etorri zirela ehun urte betetzen dira aurten. Hori gogoratzeko, irailaren 10ean (asteazkena) hainbat ospakizun egingo dituzte Belloc, Estibaliz eta Lazkaoko benediktarrak. 9:30ean ekitaldi erlijiosoa egingo dute Gurutzetan, ondoren Benediktarrak Idiazabalen izan zuten egoitzaren inguruak bisitatuko dituzte. Eguerdian meza izango da San Migel parrokian. Hurrengo alean benediktarrak Idiazabalen egin zuten egonaldiari buruzko xehetasun gehiago.

Xabier Urteaga

Pirinioetan joan-etorria

33 egunen buruan GR10-GR11 kateatu ditu Gustavo Baigorri

Guztira 1.765 kilometro egin ditu Pirinioak

zeharkatzen. Egunean bataz beste 55 kilometro eginaz eta 12-13 ordu ibiliz, nekatuta baina gustura itzuli da egindako balentriaz, izan ere bi ibilbideak jarraian egin dituen lehenengo mendizalea da Gustavo Baigorri beasaindarra.

Iragan uztailaren 19an, 7 kiloko motxila bizkar gainean zuela irten zen Hendaiatik. GR-10 bidea hartu eta Frantzia aldetik Mediterraneoraino Pirinioak zeharkatuz iristea zen lehen helburua. "Hendaiako nire etxetik Larrunera GR-10a jarraituz joan nintzen behin eta bidea oso ondo markatuta zegoela ikusirik zeharbide osoa egitea bururatu zitzaidan bat-batean", azaldu digu.

Zeharbide hau nahikoa ez nonbait eta itzulerako bidea GR-11 jarraituz penintsula aldetik egitea otu zitzaion. Ibilbidea bukatzeko gai izango zen zalantzak bazituen ere, 9 kilo gutxiagorekin bederen, abuztuaren 21ean iritsi zen eta indarrez uste baina hobeto gainera.

Orokorrean eguraldia lagun izan omen du. Mediterraneo inguruan 40 gradu inguruan ibili zen eta itzuleran ekaitz giroa nagusi izan bazen ere behin bakarrik harrapatu zuen bete-betean. Lehen egunetan aldiz ez zuen zortetik izan eguraldiarekin, erabat lainotuta baitzegoen eta ez zuen beraz inguruko paisiaz gozatzeko batere auke-



Gustavo Baigorri, lagunek egin zioten ongietorrian, Kotte Ezenarro, Hendaiako alkateak emandako oroigarriarekin.

rarik izan. "GR-10eko bidea hala ere oso ondo markatuta dago eta oso garbia da, beraz arazorik gabe jarraitu ahal izan nuen", azaldu digu. GR-11 aldiz, zikinagoa omen da eta marka batzuk ere falta omen dira, Nafarroa eta Gipuzkoa aldean batez ere. Itzulerako bidea lehen ere egina zuen eta arazorik gabe ibili zen.

GR-10a polita bezain gogorra omen da. Aldapa oso gogorrak omen ditu. "Gehienez ere 2400 metro igotzen dituzu baina bailarak oso sakonak dira eta behe-behetik hasten zara igotzen, izugarria da. GR-11n aldiz, altuera handiagoetara igotzen zara baina jaisierak gero ez dira hainbesterako", gaineratu du.

182.000 metroko desnibela egin du eta 110.000 kilo/kalori gastatu ditu

Goizeko 5etan jaikitzen zen, ondo gosalduta eta 6,30ak inguruan abian izaten zen ibilbide luzeari ekiteko. Ordu erdiko pare bat geldialdi egiten zituen errez digerit zitekeen mokaduren bat egin eta lehenbailehen aurrera jarraitu ahal izateko. GR-10 bukaera aldera ordea, 7 kilo galdu zi-

tuela eta indarrak ere galtzen ari zela nabaritu ondoren, bazkariari tarte handiago egitea erabaki zuen. Gauean egiten zuen afariarekin saiatzen zen egunean zehar galdutakoa janaren bidez errekupe- ratzen.

Bitxikeriak

Gogorrera noski, jasan behar izan zuen gastroenteritis izan zen. Egun bat Pantikosa-ko balnearioan geldituta egoitea behartu zuen honek eta dieta berezia eginez gainera. Aurrera jarraitzeko indarrak gabe baina hurrengo egunean bertan abiatu zen, hiruzpalau egun nola-hala, pixkana errekupe- ratzen joan zen bere hona etorri zen arte.

Ezin ahaztu bestalde bidean galdu zuen kamera. "Kamerak baina pena handiagoa eman dit galdutako argazkiek. GR-10eko argazkirik gabe gelditu bainaiz, eta niretzat argazki bakoitzak esanahi berezia izaten du. Hala ere bidean, GR-10 kontrako norabidean egiten ari ziren Lizartzako bi tiporekin elkartu nintzen eta ea beraiek ateratzen dituzten argazkiekin moldatzen naizen".

Orokorrean ordea oroitzapen onak utzi dizkio bakardadean egin duen ibilbide luze

honek. Frantzia aldean esate baterako, dirua ateratzeko arazoak izan zituen eta batean, Baionako bikote batek gosaltzera gonbidatu zuten. Beget eta Mollo artean dagoen 'Etxalde' landetxean ber- ritz, bera iritsi zenean lekurik ez eta txoko bat prestatu eta jaten eman zioten eta ez zioten kobratu nahi izan. Harri eta zur gelditzen zen jendea egiten ari zenaren berri jakitean.

Ibilbide luzea

Ez da ibilbide luzea egiten duen lehen aldia. Iaz Tarifatik Santiagorako bidea egin zuen, Cap de Creuxetik Finisterrera ere egina du marka ezin hobean eta Orreagatik Santiagora 12 egunean ere bai. Gaztelako kanala, ber- ritz, Gabonetako opor batzuetan egin zuen.

Egin dituen ibilbide guztietatik gogorrera zein den galdetzean, aurtengoa dela aitortu digu. "Iaz hala ere gehiago sufritu nuen Tarifa-Finisterre egiten. Oinekin arazoak izan nituen. Gainera sufrimendua desberdina da, 75 km egiten nituen egunero bero izugarriarekin, pista bat hartu eta ibili eta ibili burua altxa ere egin gabe. Pirinioetan ibiltzea errazagoa da, bu- ruarentzat batez ere paisaia politagoa baita", azaldu digu Gustavok. Aurtan gainera fi- sikoki ere hobetoago aurkitu omen da.

Etorkizunera begira erron- karen bat duen galdetzean, ez zaio gauzak aurreratzea gus- tatzen, baina GR-7a egiteko gogotsu dago. Topogiarik ez dago ordea eta logistikoki prestakuntza handia eskatzen du ibilbide honek.

Nekane Altuna

Alemania, Suitza, Eslovenia, Hego Tirol, Austria eta Euskal Herriko partehartzaileekin

Nazioarteko sega txapelketa Seguran irailaren 5, 6 eta 7an

Alemania, Suitza, Eslovenia, Hego Tirol, Austria eta Euskal Herriko segalariak arituko dira lehian Seguran irailaren 7an. Egun hori borobiltzeko asteburu guztiko egitaraua prestatu dute Almitza elkarteok eta Segurako herriak.

Sei nazioetako 90 segalari-rik parte hartuko dute Segurako lehiaketan, bakoitzetik 5 emakumezko eta 10 gizonezko. Hauez gain bakoitzetik 2 epaile, 2 kronometratzaile eta epaile nagusia izango dira. Egin beharreko lana: emakumeek 7x5 metroko saila ebaki beharko dute eta gizonezkoek 10x10 metrotako saila. Segalari bakoitzari dagokion saila bezperan egiten den zozketan erabakiko da. Txanda bakoitzean 6 segalari arituko dira batera, herrialde bakoitzetik bat.

Denbora eta puntuazioa

Txapelduna aukeratzeko, saila ebakitzeko azkartasuna eta txukuntasuna hartuko dira kontutan. Txukuntasuna ulertzeko, zelaia belar izpirik gabe egon behar da, sega joaldiak kontutan hartzen dira, ez da kontra-mailarik onartzen... Behin segaldia bukatu eta epaileak oniritzia emandako-



5 goierritar lehiaketan

Ekainaren 15ean Segura bertan egin zen Euskal Herriko kanporaketan ondorengo 5 goierritarrek lortu zuten nazioarteko lehiaketarako txartela. Emakumezkoetan Aloña Galarraga idizabaldarra eta Aloña Jauregi zaldibitarra arituko dira. Gizonezkoetan, berriz, Xabier Mendizabal eta Mielmari Jauregi (Alltzo) zaldibitarrak eta Ikutz Garmendia beasaindarra. Ondorengoek osatzen dute Euskal Herriko ordezkartza: Izaskun Larrarte (Ibarra), Roxi Urkola (Zizurkil), Ainhoa Lizarralde (Legazpi), Juan Manuel Erasun (Aia), Andoni Egia (Orendain), Jesus Mari Goenaga (Errezil), Inazio Goioaga (Zeanuri), Urki Ormaetxea (Orendain), David Mariñalena (Lantz) eta Garikoitz Etxeberría (Amasa).

an belarra bilduko da epaileek mozketa eta zelaia-aren egoera puntuatzeko. Egindako akatsak penalizatuko dira eta puntu horiek egindako denborari gehitzen zaie. Batuketa horren ondoren puntu gutxien dituen izango da irabazlea. Sailkapena egiteko garaian adina ez da kontutan hartuko eta irabazle bana izaten da gi-

zonezko eta emakumezko kategorietan. Taldea lehen hiru sailkatuak dituen izango da garaile.

Lehiaketa Segurako Madurako zelaian egingo da, Euskal Herriko sailkapen saioa antolatu zen leku berdinean. Segura eta Zeraingo aterpetxeetan lo egingo dute partaideek.

Zelaia ureztatzen lana

Uda honetako lehortea dela eta, zelaia egoera onean edukitzea izan da antolatzaileen ardura nagusietako bat. Zelaia lehen aldiz neguan ongarritu zuten. Uztailaren 10ean bibelarra ebaki zutenetik berriro ongarritu eta gauero ureztatzen aritu dira. Gaueko 11etatik goizeko 8ak arte bi orduz behin ura aldatzen 6 laguneko taldea aritu da lanean. Zelai handia denez leku guztietan ez da belarra berdina hazi eta lehiaketaren egunean sailen zozketak zerikusia izango duelakoan daude antolatzaileak. "Terrenoa orain arte segarako ibili gabea da eta hori nabari da. Aurretik bertan lan egin izan bagenu lortuko genuke belarra berdina egotea. Dena den, terreno asko dagoenez saiaturako gara ahal den sail berdinak egiten. Emakumezkoen lur saila, berriz, oso egoera onean dago", dio Juan Mari Agirrezabala Almitza elkarte-ko kideak.

Segurako herriarengandik jaso duten laguntza eskertu nahi dute Almitza elkarteok. "Zelai-ko lanetan, desfilea antolatzen... laguntza handia jaso dugu".

Desfile ikusgarria

Larunbatean arratsaldeko 6etatik 7etara partehartzaile-

IRUDI - Foto, S.L.
Javier Fernández Sánchez
Erroilu bat **doan** negabibo errebelatu bakoitzarekin
Argazki zaharren retoke digitala
San Inazio kalea, z/g BEASAIN
Tel./Faxa: 943 888 100

Pottoka
KAFETEGIA
Legazpi kalea, 3
ORDIZIA
● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak



en desfilea egingo da Segura-kaleetan zehar. Desfilea honetan herrialde bakoitzeko banderaren atzetik segalariak joango dira beraien janzkera bereziekin eta atzetik lurralde bakoitzeko ohitura eta musika erakustaldia eginez joango dira eta herrialde bakoitzeko ordezkariak epaileak itxiaz.

Aurtengo lehiaketa Euskal Herrian denez, desfilean bertako ordezkariak zabalagoa izango da eta hainbat karroza ere izango dira. Idi pare bat joango da lehenik, gurdian belar iharra duela, eta ondoren familia bat izango du. Ondoren karrozan baserri bateko sukaldea irudikatuko da, behoko sua, aitiona, amona eta abarrek. Azken karroza batean, euskal herriko jendea nola dibertitzen zen ikusteko sagardo upela eta mahai baten inguruan jendea joango dira. Karroza hauen artean txistulari, trikitilari, albokari, dantzari, zarpantzar eta erraldoiak joango dira.

Desfilea hau segurarrek prestatu dute eta zarpantzar, albokari eta idi pareak izan ezik, gainontzeko guztiak segurarrek izango dira.

Bi urtez behin

Nazioarteko txapelketa hau bi urtez behin izaten da eta aldi bakoitzean herrialde bat izate

ten da antolatzailea. Aurtengo Euskal Herriari suertatu zaio.

Almitza Segura Elkarteak txapelketa prestatzen hasi zenean Segura leku egokia zela ikusi zuen, zelai lauak dituelako, lo egiteko tokiak gertu, azpiegitura egokia... Segurako Udalarekin harremanetan jarri ziren lehiaketa aurrera ateratzeko eta laguntza osoa jaso dute.

Lehiaketa hau zerbait berria da Euskal Herrian, baina, Europako zehar urteak darabazte antolatzen: *“zerbait interesgarria eta ikusgarria da, kirol mailatik begiraturik segalari onenak biltzen baitira bertan eta bestetik, kultura aldetik, kultura desberdinekin hartu eman polita lortzen da”*, diote Almitzakoei.

Oihartzun handia

Europako burutzen den Nazioarteko Txapelketa honek bere lehen hastapenak 1969. urtean eman zituen. Alpe inguruko nekazal kutsua duten lurraldetan. Lehen bultzatzaileak Alemaniako babieratarrak izan ziren. Euren helburu nagusienetako bat nekazari gazteen artean lehengo ohiturak mantentzea zen teknologi berrien ustiapenen aurrean.

Gazteen artean segalaritza bultzatzeko sortua da sega txapelketa hau, ondorioz tal-



Egitaraua

Irailak 5, ostirala:

Eguneko zehar: Irten direnei harrera.

22:00etan: Ongi etorri jaialdia plazan: taldeen aurkezpena, dantzaldia Bidusound taldearekin.

Irailak 6, larunbata:

9:00etan: Irtenaldi turistikoa.

15:00etan: Zelai probaketa (entrenaldia).

18:00etan: Desfilea: lurralde bakoitzeko folklorea ikusgai.

19:00etan: Zelai sailen zozketa plazan.

20:30ean: Aimar Hirigoiaren harri jasotzailearen saioa.

21:00etan: Herri afaria Baratze pilotalekuan.

23:00etan: Folklore jaialdia plazan.

00:30ean: Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia plazan.

Irailak 7, igandea:

Egun guztian zehar: Janaria eta edaria Madurako karpan Kirkil txarangak girotuz.

9:00etan: Meza alemanieraz eta euskaraz komentuan.

11:00etan: Nazioarteko sega txapelketaren hasiera Madurako zelaietan:

11:30etik 14:00etara: Emakumezkoen lehiaketa.

16:00etatik 18:30era: Gizonezkoen lehiaketa.

19:30ean: Sari banaketa plazan.

Ondoren: Itxiera jaialdia eta dantzaldia Kirkil txarangarekin.

de bakoitzetik aurkeztu diren segalarietan, gizonezkoetan gehienez 3 eta emakumezkoetan bakarrik izan daitezke 30 urtez gorakoak.

Nazioarteko lehiaketa hau ez da Europako zehar izaten den bakarrik, baina bai oihar-

tzun handienetakoa duena, Baso Beltzeko Txapelketarekin batera. Azken hau ere, bi urtez behin izaten da. Almitza Segura Elkarteak 1996. urtetik urteroko zitak ditu bi lehiaketa hauek.



Kilometroak 2003ren laguntzaileak Goierrin

goierrin

Diru-laguntza: 1.50

**EUSKARAZ
BIZI NAHI DUT**

zozketa

- 4 asteburu, bi pertsonentzako, nekazaritza etxeetan.
- 4 sarrera Donostiako La Perla talasoterapia zentrorako.



KMK'03 LZKO

SAN BENITO IKASTOLA

* Euskaraz bizi nahi dut. Kilometroak 03 / Lazkao

ZOZKETA irailaren 12an egingo da. Zerbaki sarritan GOIERRITARRA aldizkari irailaren 19ko allean eta egunkarietako kroniketan argitaratuko dira. Zerbaki hau, kilometroak 2003ko TONBOLA honetan lagundu duten Goierriko merkatariek banatuko dute.

Kilometroak 2003ko antolakuntzak, Goierriko merkatariek askoren laguntza jaso du. Tonbola batzordeko kideek Kilometroak egunean tonbola antolatuta ahal izateko Goierriko herri desberdinetako merkatarien artean laguntza eskaria luzatu zuen. Eskari horrek erantzun ona izan du merkatarien aldetik eta Kilometroak egunean tonbola antolatuta ahal izateko produktu ugari bildu dira. Hau dela eta Kilometroak 2003ko antolakuntzak modu batera edo bestera lagundu duten merkatariek eskertu nahi ditu.

Lazkaoko Kilometroak lagundu duen denda, taberna, ostatu, jantoki, ... desberdinek Laguntzaile pegatina jaso dute antolatzaileen eskutik.

Honekin batera "Goierrin Euskaraz Bizi nahi dut" zozketa bereziko zenbakiak ere eman zaizkie merkatariei beraien bezeroen artean bana-

t z e k o .

Zozketa honetako txartelik oraindik ez baduzu, Kilometroak Laguntzaile txartela duen denda, taberna,

jantoki... batera joan beharko duzu zure erosketak egitera. Bertan lortuko dituzu zozketa bereziko zenbakiak.



Diskoa salgai

Kilometroak 2003ko kanta Alaitz eta Maiderrek egin dute. Dagoeneko kanta hau eta beste 6 biltzen dituen diskoa, Goierriko taberna desberdinetan eskuratu dezakezu 10 euroren truke. Kilometroak dela eta antolakuntzak, Lazkaorekin lotura zuten musika-talde guztiei egin zien kanta aurkezteko proposamena. Ondoren komunikabideetako adituen laguntzaz, KMK kanta aukeratu zen. Diskoko lehen kanta, Alaitz eta Maiderrena da. Dena den, diskokan parte hartzeko aukera guztiei eskaini zaie eta 7 kantaz osaturiko diskoa dago salgai. Besteak beste diskokan Drindots, Kaki Arkarazok, Ikastolako Abesbatzak, Lazkaoko Musika eskolak, NKN-k, parte hartu dute.

Kilometroak 2003 dendaren irailako ordutegiak

Lazkaon dagoen Kilometroak 2003ko materialeak saltzen duen dendak irailean honako ordutegia izango du:

- **Irailaren 15era bitarte:** arratsalde egongo da zabalik 17:00etatik, 20:00etara.
- **Irailaren 15etik aurrera:** goiz eta arratsalde egongo da irekita. Goizez 10:00-12:30 eta arratsalde 17:00-20:00etara.

Merkealdia

Kilometroetako hainbat produktu %50 merkeago eskuratu ahal izango dira.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882 442
☎ 943 888 901
Faxa: 943 888 901
LAZKAO



Zubi termiko hausturak
leihoak

Bulego eta bainuetako
manparak

Ateak, erakusleihoak eta
balkoiak

GEURIA

ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162

Iñauti Ind. 14

OLABERRIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

zinea

ORDIZIA:

Irailak 5, 'Femme Natale', Herri Antzokian, 22:15ean.

Irailak 7, 'Simbad, la leyenda de los siete mares', Herri Antzokian, 16:45ean. 'Femme Natale', 19:30ean eta 22:15ean.

Irailak 8, 'Femme Natale', Herri Antzokian, 19:30ean.

bertsoak

BEASAIN:

Irailak 7, Mikel Mendizabal eta Sebastian Lizaso, Agortan, 12:00ak aldean.

ORDIZIA:

Irailak 13, 22:30ean, Herri Antzokian: Xukan Taldeak 'Iturrian zer dago?' ikuskizuna taularatuko du, dantza, bertsoa eta trikitixa uztartuta.

ZERAIN:

Irailak 13, Berriaren aldeko bertso afaria, Iker Zubeldia, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxearekin.

ikus-entzuneak

ORDIZIA:

Irailak 11, 20:00etan, Barrena Kultur Etxean, 'Eunhate' taldearen ikus-entzunezko proposamena.

dantza

ATAUN:

Irailak 7, Otsoak dantza taldea, 20:00etan, San Gregorion.

Irailak 8, Sarako dantza taldea, 18:00etan, San Gregorion.

BEASAIN:

Irailak 6, Arkupe eta Ostadar dantza taldeak, Loinazpe ikastetxean, 19:00etan.

ORDIZIA:

Irailak 5, Behobiako Eraiki Dantza Taldea, Plaza Nagusian, 22:00etan.

Irailak 14, 20:00etan, Plaza Nagusian, Pontevedra-ko Sta. M^a de Tebra (Tomiño) herriko 'Grupo etnográfico Airiños de Tebra' dantza ikuskizuna.

musika

ATAUN:

Irailak 5, Ene Bada, 24:00etan, San Gregorion.

Irailak 6, Lobo Electrico, Los Padrinos eta Captain Nemo, 22:00etan, San Gregorion.

Irailak 6, Irats taldea, 01:00etan, San Gregorion.

Irailak 7, Eate abesbatza, 18:45ean, San Gregorion.

BEASAIN:

Irailak 5, Tilin-Tolon eta Dogma de Fe, Loinazpe ikastetxean, 23:30ean.

Irailak 6, Brigantia taldea, Loinazpen, 24:00etan.

Irailak 7, Laja eta Mikel trikitilariak, Agortan, 12:00etan eta 18:30etan.

SEGURAN:

Irailak 5, Bidusound taldea, 22:00etan.

Irailak 6, Imuntzo eta Beloki, 24:30ean.

hitzaldiak

ZERAIN:

Irailaren 15, 16, 17 eta 18an, hitzaldiak 20:30ean, Kultur Etxean. Informazioa gehiago Zeraingo kronikan.

antzerkia

BEASAIN:

Irailak 5, T'Ombigo Teatro taldearen 'Katxibatxe de Kutxina', Loinazpe ikastetxean, 22:30ean.

ORDIZIA:

Irailak 6, 22:15ean, Herri Antzokian, Gorringo taldearen 'Kutxidazu bidea, Isabel' antzerki lana.

erakusketak

ORDIZIA:

Irailaren 5etik aurrera, Jorge Rodriguez Almanza argazkilaria erakusketa, Barrenan.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Irailak 6-7: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Irailak 13-14: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluak, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

IKASKETA ARAZOK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknikoa
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

☎ 943 160 120

www.ikastek.net

Etxebizitzak

salgai

➔ Eraikitzen ari diren txalet bifamiliarak salgai Goierriin. 669827096.

➔ Zegamako erdigunean 80 m²ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

➔ Zegaman 130 m²ko pisua salgai. 943422897.

➔ Donostiako Alde Zaharrean, Bretxa ondoan, pisua salgai. 2-3 logela, egongela eta sukalde handiak. 2. solairua. 943431250. 39.800.000 pezeta.

➔ Pisua salgai Beasainen. 50 m². Guztiz berria eta mobleztatua. Edu. 649911320.

errentan hartu

➔ Etxarrin uztaitetik aurrera pisua hartuko nuke alokairuan. 678384952.

errentan eman

➔ Pisu berria alokatzen da Ordizian. 653011954.

➔ Benidormen apartamentua alokatzen da. Aire egokitua, igerilekua eta garajearekin. 943801107. Joxe.

elkarbanatu

➔ Beasain eta inguruko herrietan pisu bat elkarbanatuko nuke gus-tura. Iker. 680621163.

➔ Iruñean iraitetik aurrera, elkarbanatzeko pisu bila nabil. Eli. 680519482.

➔ Salamancan bi pertsona behar dira alokatutako pisua osatzeko. 943027818. Amaia.

Lursaila

erosi

➔ Zelai ordeka bat erosiko nuke Goierriin. 5.000 m² inguru. 10 edo 15 milioi pezeta ordainduko nituzke. 649552369.

Garajeak lokalak

errentan eman

➔ 250 m²ko bi pisuko lokalak alokatzen da. Denak ekipatua. 669340218.

➔ Beasaingo Kale Nagusian, 45 m²ko salerosketako lekua alokatzen da. 943084546.

➔ 100 m²-ko etxabea alokatzen da Olaberrian. N-I errepidearen ondoan. Biltegiarako oso egokia. 943160927.

Negozioak

errentan eman

➔ Zeraingo ostatuak alokatzen da. 943801734.

➔ Olaberriko Etxezuri sagardotegia alokairuan eskaintzen da, jubilaziogatik. 943882049.

Galdutako objektuak

➔ Ezkontza eraztuna galdu nuen uztailaren 13an Oiangun. Norbaitek aurkituko balu dei dezala, 943084235 telefonora.

Animaliak

salgai

➔ Spaniel arrazako txakurkumeak salgai. 943160919 - 659843036.

➔ Setter arrazako bi txakur salgai. Bat 5 urtekoa eta bestea 6koa. 943160015.

➔ Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. 2 hilabetekoak. Arraza onekoak. 661950465.

Ibilgailuak

salgai

➔ Seat Ibiza 1.9 D salgai. NA-AP. Oso ondo zaindua. 90.000 km. 699767195. Edurne.

➔ Peugeot 405 autoa salgai. SS-AG. 943887041 - 943160926.

➔ Vespa motorra salgai. Oso egoera onean. 1.000 euro. 656723688.

➔ 1992ko Honda CR-125a salgai. 1.700 euro. 606206157.

➔ 49cm³-ko scooterra salgai. Benilli 491 RR markakoa. 3 urte. Ondo zaindua. 7.000 km. 1.100 euro. 635706569.

➔ Golf Sprinter salgai. SS-AD. Oso merke eta kilometro gutxi. 943085584. Mikel.

➔ Ford Escort salgai, 1,8 TD, 90 zaldi. SS-AZ. 4.700 euro. 943162299 - 635703490.

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 Faxa: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN

URBITARTE

tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

Bestelakoak

erosi

➔ Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. Ainhoa. 666325448.

salgai

➔ Mercedes Vito baten atzeko 3 eserlekuak saltzen ditut. Erabili ga-beak. Prezio interesgarria. 16:00etatik aurrera deitu. 609030621.

➔ Mitsubishi Montero modelo berriaren 3.2 DID defentsa orijinala eta homologatua salgai. Berria eta estreinatu ga-bea. 943880675.

➔ Premier markako bateria salgai. 943180183.

➔ Umeentzako egurrezko sehaska salgai. 5 urtera arte balio du. Oso egoera onean. 670422051.

➔ Haurrentzako motxila (estreinatu gabea) eta sehaska (handia) salgai. 125 eurotan. 656723688.

➔ Gaixoak oheratzeko garabia edo grua salgai. Klinikako ohea oparitzen da. Biak oso egoe-
ra onean. 943084546.

➔ Egongelako altzariak salgai: armairua, mahai txikia, 3 plazako sofa bat eta plaza bakar-
reko bi sofa. Prezio ne-
goziagarria. 943085147.
22:30etik aurrera deitu.

➔ Gazte logela salgai, haritzezkoa. 'Nido' ohea: 90 cm-koa. 1,80 x 65 neurriko mahaia, ka-
joiarekin. 4 apalategi ireki eta bat itxia. 943086504.

➔ Estakak salgai, itxi-
turak egiteko. 689700647.

➔ Bi txirrindu salgai. BH markakoak. Emaku-
mezkoenak. Bat handia eta bestea ertaina. Oso-
oso merke. Gutxi erabi-
liak. 943722727.

➔ Gurdi denda salgai, 6 plazakoa. Abantzeare-
kin. 660613510.

➔ Argazki objetiboa salgai: Sigma 70200. 2,8 diafragma, Apo/Ex/Hsm. Berria. Erdi prezioan. 656415678.

Lana

eskaintzak

➔ Beasaingo neska euskalduna prest dago irailetik aurrera arratsal-
deetan umeak zaindu edo tabernan lan egite-
ko. 600831943.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko la-
nak egiteko. 670517864.

➔ Ordiziako emakume bat eskaintzen da etxe-
ko lanak egin edo hau-
rrak zaintzeko. 943084046.

➔ Irailetik aurrera edozertan lan egiteko neska eskaintzen da. 645718372.

eskaerak

➔ Pertsona bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 639962850.

➔ Irakasle partikularra behar da DBH 4. ikas-
turteko ikasle bati kla-
seak emateko, Idiaba-
len. azeri943@hotmail.com

➔ Gaintzan neska bat behar da, arratsalde, haurrak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko. 943087454. 13:00etatik 15:00etara deitu.

➔ Pertsona bat behar da 6 urteko haurra zain-
du eta etxeko lanak egi-
teko. 615701292 - 943027632.

➔ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. Astebukaeretan edo as-
tean zehar. 605772623.

➔ Baxujolea behar da rock taldea osatzeko. Goierri ingurukoa. Go-
goa eta inizatiba duen pertsona (esperientzia-
duna ahal bada). 635724660. Aitzol.

➔ Zerbitzaria behar da Beasaingo Basakana ta-
barnan, asteburuetara-
ko. 943882023.

➔ Tabernan lan egite-
ko pertsona bat behar da, Lazkaon. 943886852.

➔ Neska bat behar da Ordiziako taberna bate-
an lan egiteko. 605772623. 15:00etatik 18:00etara deitu.

➔ Neska edo emaku-
mea behar da sagardo-
tegi batean lan egiteko, larunbat iluntzetan eta igande batzutan. 615700408.

➔ Neska bat behar da tabernarako. Esperien-
tziaduna. 943887197.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045

Ondramuño baserria IDIAZABAL

oskarbi

o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA



2003-2004 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gaeuz	Irailean goizez eta arratsaldez	Sakontze Euskalduntze Alfabetatze EGA Bakarkako ikataroak

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Maria 4 - 2.ezkerra ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40



Gogo jardunak Ordizian 1950ean

1950ko otsailean Ordizian gogo jardunak egin zituzten gizekonezkoak dira argazkian ageri direnak.

Arkupe tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toailak - Gortinak eta osagaiak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



**LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia**

**2003/2004
IKASTURTEA**

• IKASTAROAK URTE OSOAN:

✓ **BARNETEGIA:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
Familia euskaldunetan egoteko aukera

✓ **BESTE BATZUK:** 2 ordu egunean
4 ordu astean (larunbatetan)
ikastaro bereziak
bakarkako ikastaroak

HABERen dirulaguntzaz.

• MAILA GUZTIAK

DEITU ETA EMAN IZENA!

☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32

lazkao@maizpide.com



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



JOS-BEL

ILEAPAINDEGIA

© 943 88 82 52

Urdaneta, 15
ORDIZIA

ANNE
MÖLLER
TRAITEMENT SUISSE
kosmetika

Alayte Orosko
bisuteria

zutikako solariuma



GARMENDIA

Teilatuak



Mallutz industrialdea, 25-26 ORDIZIA Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

E-mail: garmendia@garmendiatejas.com • www.garmendiatejas.com

Teilatuak

Jai zoriontsuak ordiziar guztioi!

Aukera ugari, TBF eta G.F. bermearekin kalitatez eta egoki bukatutako tailatuak.



Zurezko egiturak

Immersio eta hustueraz landutako zurezko egiturak, (VAC-VAC) sistemaz eta VACSOL bidez babestuak.




Hodiak

Tokian tokiko hodian instalazioak, nola aluminiozko ala kobrezko 25m. bitarteko soldadurarik gabeko luzera linealetan.

NAZIOARTEKO
SEGA TXAPELKETA

IRAILAK 5,6,7
2003

SEGURA
EUSKAL HERRIA



HATOR SEGAZ GOZATZERA

AZTI, PREST, **MOTZ!!!**